



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 12a

46. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, “Lanera kotxerik gabe” izeneko ekimena gauzatzeko lankidetzeta protokoloa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroaren eguneko ekitaldiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbait foru aginduren babesean dirulaguntzak eskuratzeko eskabide onartu eta ukatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Irunberriko San Isidro egoitzaren okupazio mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Infanta Elena zentroaren okupazio mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Ramón y Cajal zentroaren okupazio mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, alde zaharretan etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioa zertan den jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, arantza bifidoaren unitatea ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Foruzaingoko herritarrentzako arreta bulegoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Tutera inbertsio kultural eta turistikoak egiteko maileguak” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Estatistika Institutuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Julio Caro Barojaren oroimenez antolatutako erakusketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galderak, Antso Handia erregeari buruzko erakusketari buruzkoak. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

- Galdera, Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezketasuna kontrolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, ingurumen, hirigintza eta etxebizitza arloan toki entitateek laguntza emateko bulegoen sarea abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Nafarroako Gobernua” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Gares aldeko uretan farmakoak agertu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, ingurumen nahiz kultura arloko gaietarako Iberdrolak jarritako diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Olaztin errausteko industria-jarduera abian jartzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, bigarren hezkuntzako zenbait institututan kiroldegirik ez egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Toki Administrazioiko kontseilariak alkate guztiekin Xabierren deitutako bilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galderak, “Navarra ante el futuro” erakusketari buruzkoak. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Azagrako saihebidia eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, “Lanera kotxerik gabe” izeneko ekimena gauzatzeko lankidetzaren protokoloa betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak “Lanera kotxerik gabe” izeneko ekimena gauzatzeko lankidetzaren protokoloa betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du “lanera kotxerik gabe” izeneko ekimena gauzatzeko lankidetzaren protokoloari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Zer neurri hartu dira protokolo horretan ezarritakoa betetzeko? Kasua bada, zein izan dira mugikortasunari buruzko inkesten ondorioak?

Iruñeko Udala koordinatzen ari da protokolotik eratorritako ekimenak.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuari dagokionez, eta mugikortasunari buruzko inkestaren planteamendu orokorraren barne, Armada etorbideko 2. zenbakiko egoitza eta Yanguas y Miranda kaleko 27. zenbakiko egoitza aukeratu dira inkesta egiteko, 150 eta 30 lagunekin hurrenez hurren.

Aurreikusita dago Iruñeko Udalak zehaztuko dituela inkestaren edukiak. Behin prest dagoela,

aukeratutako 180 funtzionariari bidaliko zaie bete-arazteko.

Urtarrilaren bigarren asterako inkesta eskura izatea espero da, eta urtarrilaren 31rako emaitzak izatea. Horiek Iruñeko Udaleko tokiko Agenda 21 koordinatzeko bulegora bidaliko dira, han aztertu eta erabiltzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

#### **Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du “lanera kotxerik gabe” izeneko ekimena gauzatzeko lankidetzaren protokoloa betetzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Zer neurri hartu dira protokolo horretan ezarritakoa betetzeko? Kasua bada, zein izan dira mugikortasunari buruzko inkesten ondorioak?

Iruñeko Udala koordinatzen ari da protokolotik eratorritako ekimenak.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokionez, San Inazio etorbideko 3. zenbakiko egoitza eta Garraio Zuzendaritza Nagusiaren Yanguas y Miranda kaleko 5. zenbakiko egoitza aukeratu dira mugikortasunari buruzko inkesta egiteko, 124 eta 31 lagunekin hurrenez hurren.

Aurreikusita dago Iruñeko Udalak zehaztuko dituela inkestaren edukiak. Behin prest dagoela,

aukeratutako 155 funtzionariori bidaliko zaie bete-arazteko.

Urtarrilaren bigarren astetik aurrera inkesta langileei ematea espero da, eta urtarrilaren 31 baino lehen emaitzak bildu eta Iruñeko Udaleko tokiko Agenda 21 koordinatzeko bulegora bidaliko dira, han aztertu eta erabiltzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:  
Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroaren eguneko ekitaldiei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Nafarroaren eguneko ekitaldiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du 2005eko Nafarroako Egunaren ospakizunaren zenbait gai buruz. Hona hemen Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuako eledunaren erantzuna:

Kalkulatzeko zenbat jende joan den 74 herritan abesbatzek eta musika bandek egindako kontzertuetara, Nafarroan egoitza duten Erregio Etxeetako talde artistikoei Zangozan egindako ekitaldira, eta Ekuador, Peru, Txile eta Kolonbiako Nafarroako etxeetako taldeen Amerika latinoko folklore jaialdira (guztietan sarrera doan izanik) kontratatutako talde bakoitzak ekitaldiak amaitu ondoren egindako txostenak erabili dira. Aginduzkoa denez, aipatu txostenetan honakoa agertuko da: kontzertu bakoitzera joandako gutxi gorabeherako ikusle kopurua, taldekideen kopurua eta aipatzeko moduko bestelako zehaztasun batzuk. Beste ekitaldi hauetara joandako ikusle kopurua, hau da, Gazteen Jaialdira, Iruña eta Tuterako Haurren Jaialdira, Xabierreko ikuskizunera, Nafarroako Urrezko Domina emateko ekitaldira, eta Madrilan eta Baluartean egindako musika klasikoko kontzertuetara, zehaztasun osoz lortzen da saldutako sarre-

rak eta emandako gonbiteak zenbatuz. Tuterako haur-parkera joandako umeen kopurua bertako monitoreek eman zuten, eta “Jauregiak bere ateak zabaltzen ditu” programaren barruan jarritako harreraren arduradunek Nafarroako Jauregia bisitatu zutenen kopurua eman zuten.

2005eko “Nafarroako Eguna” ospatzeko antolatutako ziren ekitaldien kostuak “Nafarroako Egunaren Ospakizuna” izeneko 22200 220004 2269 921800 kontusailaren kargura ordaindu ziren. Kontusail horrek aipatu urteari dagozkion aurrekontu orokorretan 430.015 euroko zuzkidura du.

Nafarroako Gobernuak, 2005eko azaroaren 3an hartutako erabaki baten bidez, Nafarroako Eguneko ekitaldien egitaraua onetsi zuen, eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusia–Gobernuako Eledunaren Bulegoaren esku utzi zuen ekitaldien antolakuntza; beraz, hori izan da egitaraua bete-arazteko ardurak izan duen administrazio unitatea.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusia–Gobernuako Eledunaren Bulegoaren menpe dagoen Protokolo eta Argitalpen zerbitzuak antolatu ditu ekitaldi gehienak. Horrek, ohikoa denez, ekitaldi bakoitzean zerbitzu zehatzak kontratatu zituen; hala nola megafonia, otamenak, gonbidatuen harrera, egitarauak eta gonbiteak argitaratzea, mezularitza edo lore bidezko apainketa. Zerbitzu horien zenbatekoa txikia denez eta agintariak joaten diren protokolozko ekitaldiek ezaugarri bereziak dituztenez, honako prozedura jarraitu zen: zuzeneko kontratazioa fakturak aurkeztuz eta ordainduz. Publizitate kanpainaz –74.000 euro kostatu zuena– Gap’s izeneko enpresa arduratu zen, enpresa hori baita Nafarroako Gobernuaren 2005eko ekitaldirako sormenezko publizitate arrunta egiteko adjudikazio-hartzailea. Kontzertuetan parte hartu duten 74 talde artistikoetako bakoitzak ekitaldietatik 900 euro jaso ditu gehi beste kopuru bat dieta kontzertuan (taldekide bakoitzeko 12 euro), eta 500

euro garraio gastuak ordaintzeko. Tuterako DINA izeneko haur-parkea –29.775 euroko zenbatekoa izan zuena– negoziaturiko prozeduraren bidez kontratatu zen, eta arlo horretako hiru enpresari eskaintza eskatu ondoren Trámite izeneko enpresari esleitu zitzaion. Iruñeko Ganbera Abesbatzak eta London Pro Arte Orkestrak Baluartan eta Madrilen elkarrekin emandako kontzertuak –62.550 euro kostatu zuten– zuzenean kontratatu ziren Kontratuei buruzko Foru Legean agertzen den “espezifikotasun artistikoaren” babesean.

Abesbatza eta musika banden 74 kontzertuak aurreko bi urtetan bezala antolatu ziren, hau da, talde artistikoen parte-hartzearekin eta kontzertuak egin ziren herrietako udalekin elkarlanean. Programa horren helburua da Nafarroa osoan bertako taldeek emandako ahalik eta musika ikuskizun gehien batera eskaintzea; izan ere, hori da modurik egokiena Nafarroako Eguna ospatzeko kalitatezko agerkari kultural eta herrikoi baten bidez. Urtez urte hobetzen joan da helburu hori, eta horrela, handitu egin da eskainitako kontzertu kopurua eta ondorioz entitate parte-hartzaileen kopurua. 2003an 60 izan ziren, 2004an 68 eta azken urtean 74. Emanaldiak egin ohi dituzten Nafarroako abesbatza eta musika banda guztiei bidali zitzaien gonbita berea ez zen herri batean kontzertua emateko. Emanaldi guztiak abenduaren 3an, 13:00etan, izango ziren eta Nafarroako ereserkiarekin hasiko ziren. Taldeen baiezkoa jaso eta gero, bakoitzari ekitaldia egiteko herri bat egokitu zitzaion; Nafarroako eskualde eta herririk handienak kontuan hartu ziren. Udalerrietako alkateei kontzertuen berri eman eta beren laguntza eskatu zitzaion, kontzertuetarako toki egokia bilatzeko,

herritarrei jakinarazteko eta, nahi izanez gero, jai zela-eta bestelako ekitaldi osagarriak antolatzeko. Aldi berean, udalerrri bakoitzeko kultura, ekintza artistiko eta abarren arduradunei kontzertuen berri eman eta kontzertuaren betetze materiala egiteko laguntza ere eskatu zitzaion. Talde artistikoek bidalita kontzertu guztien egitaraua jaso ondoren, ikusleen artean banatzeko kontzertu bakoitzeko esku-orriak eta iragartzeko kartelak egin ziren; horiek, udaletara bidali ziren herriko leku adierazgarrienetan paratzeko. Kontzertuak egin eta gero parte hartu duen talde bakoitzari adostutako zenbatekoa ordaindu zaio.

Bruselako Nafarroako Gobernuako Bulegoak, azken urteotan egin ohi duenez, abenduaren 3aren inguruan topaketa bat antolatu zuen bere egoitzan. Horretara ehun lagun inguru joan zen, besteak beste Bruselan bizi diren nafar batzuk, Javier Pomés europarlamentaria, Europako zenbait entitateko kideak eta Espainiako eta atzerriko beste erregio batzuetako ordezkariak. Nafarroako Gobernuako kiderik ez zen Bruselara joan, eta Europako Batasunean Nafarroako Foru Komunitateak duen ordezkariatzako zuzendaria topaketaren buru izan zen. Harreran eskainitako otamenean Nafarroako hainbat produktu sustatu ziren eta 1.745 euro gastatu ziren horretan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuako eleduna: Alberto Catalán Higuera

## Galdera, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko publizitate kanpainei buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera departamentu honetako Kontsumo Zerbitzuari buruzko informazioarekin kopia igortzen dut.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 17an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua

AZALPENA	ENPRESA	ZENBATEKOA (€)	ALE KOPURUA	KONTUSAILA
CUADERNOS DE CONSUMO, 5. ZK.	Diseinua: J. Camarena EPC S.L. Inprimatzea: IMAGRAF	1.347,61	1.000	860001-81510-2262-4444200
▪ Prezioen nahitaezko aipamena				
▪ Erreklamazio orriak				
▪ Adiskidetzea eta kontsumitzailearen babesak				
▪ Kontsumo arduratsua/kontsumo iraunezina				
▪ Kontsumo ohiturak Nafarroan				
2005eko GABONETAKO KANPAINA	Komunikazio Zerbitzua. Komunikazio Zuzendaritza Nagusia	11.329,90	Diario de Navarra (5 iragarki) D. Noticias (3 iragarki)	860001-81510-2262-492300
▪ Erosketak planifikatu				
▪ Kontsumo bidezkoa eta arduratsua				
2004ko LAUDOEN BILDUMA	Diseinua: MRSYSTEM	750	550	860002-81520-2262-444200

## **Galdera, Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Tutera-Ejea de los Caballeros errepidea hobetzeko lanei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Zein arrazoi, motibo edo zergati direla-eta atzeratzen ari dira Tutera-Ejea de los Caballeros (Zaragozako muga) errepideko obrak, eta, horrenbestez, bide hori trafikora zabaltzeko unea? Gogoa izan bidea obrei ekiteko itxi zutela eta, horrenbestez, erabiltzaileek berrogei kilometro baino gehiagoko buelta egin behar izaten dutela.

Erantzuna:

Tuteratik Ejea de los Caballerosera doan NA-125 errepidea hobetzeko lanak proiektu hauetan daude zehaztuta: "Tuteratik Ejea de los Caballerosera doan NA-125 errepidea hobetzeko lanak. Zatiak: 0+000 k.p.-tik 5+600 k.p.-ra eta 6+150 k.p.-tik 10+450 k.p.-ra 2004. urtean izandako uholdeen eraginez izandako kalteak konpontzeko", Proiektua Cintec, S.L. enpresako José Ramón Ranz Garrido bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzi zuen eta lanak aipatu enpresari adjudikatu zitzaizkion martxoaren 23ko 177/2005 Ebazpenaren bidez.

Ekainaren 17ko 353/2005 eta 354/2005 foru aginduen bidez onetsi ziren proiektu horiek eta obrak kontratatzeko espedienteak.

Bestalde, abuztuaren 2ko 411/2005 eta 412/2005 foru aginduen bidez adjudikatu ziren Tuteratik Ejea doan N-125 errepidean 2004ko irailean izandako uholdeek eragindako kalteak konpontzeko lanak, ondoko zatietan: 1 (0+000 k.p.-tik 5+600 k.p.-ra) eta 2 (6+150 k.p.-tik 10+450 k.p.-ra)" Construcciones Luciano Elcarte, S.L. enpresari. Lanak egiteko epea 5 hilabetekoa zen eta adjudikaziorako aurrekontua 1.033.835,52 eurokoa (% 13,99ko beherapenarekin) eta 962.866,00 eurokoa (% 14,51eko beherapenarekin), hurrenez hurren.

Kontratuak 2005eko abuztuaren 4an sinatu ziren, eta, espedienteak premiazko tramitazioa izan zuten, egun horretan bertan eman zen obrak hasteko agindua; horrenbestez, lanak amaitzeko epea 2006ko urtarrilaren 5ean amaituko da.

Onetsitako proiektuen arabera –eta halaxe azaltzen da proiektuen agirietan-, beharrezkoa da errepidea trafikoarentzat ixtea ukitutako 34 fabrikalanak berrezartzeko, bai alderdi tekniko eta ekonomikoak (lanak egiteko metodoa eta epea), bai bide segurtasunarekin lotutako alderdiak direla medio.

Hori dela eta, 2005eko irailaren 5ean errepide hori trafikoarentzat itxi zen aipatu obrak egiteko.

2005eko urrian, azaroan eta, batez ere, abenduan, eguraldia txarra izan bada ere, obrak bukatuta daude, eta Tuteratik Ejea doan errepidea 2005eko abenduaren 27an ireki zen, hau da, kontratuan ezarritako epea baino 8 egun lehenago. Kontuan hartu behar da kontratuan ezarritako epea, berez, oso estua zela.

Hori dela eta, eginiko galdera ez dator bat izandako gertakizunekin.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbait foru aginduren babesean dirulaguntzak eskuratzeko eskabide onartu eta ukatuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbait foru aginduren babesean dirulaguntzak eskuratzeko eskabide onartu eta ukatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras

ras Iñigo andreak galdera egin du Nafarroako Emakumearen Institutuak zenbait foru aginduren babesean dirulaguntzak eskuratzeko eskari onartu eta ukatuei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. 146/2005 Foru Aginduaren deialdirako aurkeztu ziren 12 eskarieratik, zenbat onartu dira eta zenbat ukatu dira? Zenbat diru jaso du onartueta bakoitzak eta zein irizpideren arabera eman dira? Zenbati ukatu zaie dirulaguntza eta zergatik?

Aipatu deialdiari dagokionez, aurkeztutako 12 eskaritik 9ri dirulaguntza eman zitzaizkien, 2 ez ziren onartu, eta eskatutako agiriak ez aurkezteagatik batek eskaria bertan behera utzi zuela ulertu zen. Beraz, ez da eskaririk ezetsi. Hori guztia ondoko tauletan zehazten da.

### **DIRULAGUNTZA ESKURATU ZITUZTEN ESKATZAILEAK**

Eskatzailea	Enpresa	Jarduera
Saiz Delgado, Elma	IMEL Consultoría jurídico tributaria	Aholkularitza juridikoa eta tributuei buruzkoa.
Chorrraut Aguirre, Eva	NEXO Diseño y Comunicación	Diseinua eta komunikazioa
Larraz Gil, Pilar	Pilar Larraz Gil	Analisi klinikoen laborategia
Sola López, Virginia	Virginia Sola López	Hortz klinika
Marín Arteaga, Marisa	Marisa Marín Arteaga	Ortodontzista
Oiz Zarranz, Marta	Peluquería Marta	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
Apezetxea Zabaleta, Ana Isabel	Ana Apezetxea Zabaleta	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
León Corres, M <sup>a</sup> Victoria	Peluquería León	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
Molinero Corera, M <sup>a</sup> Teresa	Teresa Molinero Corera	Fruta-denda

### **ESKATZAILE EZ ONARTUAK**

	Eskatzailea Jimenez Catalan, Elena
Arrazoiak:	Onuradunak izeneko 3. oinarria ez betetzea 2005. urtean ez baitu emakumezkoen enplegua hobetzeko planarik egin edo martxan jarri (egindako hobekuntza 2002. urtekoa da).
	Eskatzailea Aniz Aldasoro, Maite
Arrazoiak:	Onuradunak izeneko 3. oinarria ez betetzea ez baitu emakumezkoen enplegua hobetzeko planarik egin edo martxan jarri (enpresak ez du kontratupeko langilerik).



## ESKARIA BERTAN BEHERA UTZI DUEN ESKATZAILEA

	Eskatzailea Machain Mariarena, Marta
Arrazoiak:	Akatsak zuzentzeko agiririk ez aurkeztea. Osagabeko dokumentazioa.

Dirulaguntzak emateko irizpideak, ezin da bestela izan, laguntza emateko deialdian ezarritakoak izan ziren. Balorazio batzordeak, irizpide horiek aplikatuz, onartutako eskari bakoitzari puntuazioa eman zion eta ondoko taulan agertzen diren zenbatekoak ematea proposatu zuen. Horiek ezartze-ko, aintzat hartu zituen aukera berdintasunaren

aldeko konpromisoagatik nabarmendu ziren eskariak, eta hori islatu zen lortutako puntuazioan; horretarako, 40 puntu baino gehiago zutenak hartu ziren kontuan.

Hona eskaria bakoitzerako proposatu zen zenbatekoa:

Eskatzailea	Enpresa	Jarduera	Puntuazioa	Proposaturiko zenbatekoa
Saiz Delgado, Elma	IMEL Consultoría jurídico tributaria	Aholkularitza juridikoa eta tributuei buruzkoa	38.5	2.000
Chorraud Aguirre, Eva	NEXO Diseño y Comunicación	Diseinua eta komunikazioa	61.5	3.017
Larraz Gil, Pilar	Pilar Larraz Gil	Analisi klinikoen laborategia	44	3.000
Sola López, Virginia	Virginia Sola López	Hortz klinika	38	2.000
Marín Arteaga, Marisa	Marisa Marín Arteaga	Ortodontzista	37	2.000
Oiz Zarranz, Marta	Peluquería Marta	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia	34.5	2.000
Apezetxea Zabaleta, Ana Isabel	Ana Apezetxea Zabaleta	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia	36.5	2.000
León Corres, M <sup>a</sup> Victoria	Peluquería León	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia	37.5	2.000
Molinero Corera, M <sup>a</sup> Teresa	Teresa Molinero Corera	Fruta-denda	43	3.000

2. Aurrekoa bera 147/2005 Foru Aginduaren arabera dirulaguntza eskatu duten 81 enpresei buruz.

Deialdi horri dagokionez, ondoko eskariak aurkeztu ziren:

## Eskariaren ZK. Eskatzailea

1	Sagardoy Allo, Angela	12	Prieto Pérez, Susana
2	Calatayud Alvarez, Ana	13	Garatea Aldaz, M <sup>a</sup> Encarnación
3	Aragón Iroiz, Arguiloain	14	Ripalda Vazquez, Victoria
4	García Marques, Begoña	15	Eguzkiza Echekoenea, Amaia
5	Martínez Durandez, Ana María	16	Gonzalez Larrea, Sonia
6	Malón Bilbao, Saray	17	Duran Vinuales, Cristina
7	Remiro Virto, Beatriz	18	Bigas Berrozpe, Sylvia
8	Vega Marturet, M <sup>a</sup> Dolores	19	Gamboa Pellejero, Aitziber
9	Gurrea Barricarte, Montserrat	20	Setuain Chorraud, Katrin
10	Tort Bori, Monica	21	Aznarez Alvarez, María
11	Morales Ocaña, M <sup>a</sup> José	22	Oiffa, Zineb
		23	Antón Ramirez, Susana
		24	Martine Lenderink, Lourine
		25	López Jimenez, M <sup>a</sup> Carmen
		26	Sierra Guillén Vanesa
		27	Zabaleta Zabaleta, María
		28	Iparragirre Perurena, Ainhoa

29	Flores Herrera, Rocio	56	Catalán Adrián, Asunción
30	Delgado Olivera, Zulema	57	Legarra Eguzquiza, Mercedes
31	Ortega Marcos, María	58	Palacios Velilla, M <sup>a</sup> Dolores
32	Ruiz Abascal, Marta	59	Berengaña Ibero, Mirentxu
33	Arbeloa Roch, María Isabel	60	Cárcamo Bravo, Susana
34	Crespo Sarasa, Cristina	61	López Aramendia, Diana
35	Garrues Iñiguez, Ana Isabel	62	Carricas Torres, Ana
36	Aranaz Hernández, Idoya	63	Torres Zuleta, Edyluz
37	Ripalda Unciti, Amaya	64	Lerga Garayoa, Raquel
38	Arroniz Marín, Ainoa	65	Aniz Aldasoro, Maite
39	Fernandez Llodio, Idoya	66	Bernal Rodriguez, Sara
40	Gorritz Salamanca, Cristina	67	López Sarasola, M <sup>a</sup> Lourdes
41	Lopez Nava, Sara	68	Cerezo Rios, M <sup>a</sup> José
42	Boadu, Comfort	69	Otero Fernández, Agustina Lucia
43	Ballester Belcos, Carolina	70	Mendizabal Allika, Itxaso
44	Oña Pilicita, Silvana Maribel	71	Fraisoli Novoa, Ainoa
45	Lozano Cabrera, M <sup>a</sup> Ursula	72	García Correa, Olga Maritza
46	Begoña Gonzalez Barajas	73	Ayucar Berruete, Nuria
47	Pereira Da Costa, M <sup>a</sup> Isabel	74	Arizala Lacalle, Edurne
48	Machain Martiarena, Marta	75	Nazabal Regueira, Itziar
49	Arce Miró, Joana	76	Urteaga Arrizabalaga, Jaione
50	García Astiz, Esperanza	77	Lopez Subiza, Raquel
51	Oneca Agurruza, María	78	Prieto, Edurne
52	Lizaso Azcarate, María	79	Salinas Gomez, Aranzazu
53	Arrese Alvarez, Miren	80	Yanci López, Cristina
54	Urzaiz Fraile, Nieves	81	Ochagavía Pinillos Rosario
55	León Corres, M <sup>a</sup> Victoria		

Horietatik 1 ez zen onartu, 48 ezetsi ziren, 28ri laguntza eman zitzaaien eta 4k eskaria bertan

behera utzi zutela ulertu zen. Hori guztia ondoko tauletan zehazten da.

#### ESKARI EZ ONARTUAK

	Eskatzailea Ochagavía Pinillos Rosario
Arrazoiak:	Enpresaren altako data deialdian ezarrita dagoen epetik kanpo dagoelako

#### BERTAN BEHERA GELDITURIKO ESKARIAK

Eskatzailea	Egoera
Setuain Chorraut, Katrin	Bertan behera utzia
Gorritz Salamanca, Cristina	Bertan behera utzia
Pereira Dacosta, M <sup>a</sup> Isabel	Bertan behera utzia
Lizaso Azcarate, María	Bertan behera utzia

## EZETSITAKO ESKARIAK

Eskatzailea	Egoera	Arrazoia
Sagardoy Allo, Angela	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Aragón Iroiz, Arguiloain	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
García Marques, Begoña	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Malón Bilbao, Saray	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Remiro Virto, Beatriz	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Vega Marturet, M <sup>a</sup> Dolores	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Tort Bori, Monica	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Garatea Aldaz, M <sup>a</sup> Encarnación	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Ripalda Vazquez, Victoria	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Eguzkiza Echeoenea, Amaia	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Duran Vinuales, Cristina	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Bigas Berrozpe, Sylvia	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Gamboa Pellejero, Aitziber	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Antón Ramirez, Susana	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
López Jimenez, M <sup>a</sup> Carmen	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Sierra Guillén Vanesa	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Flores Herrera, Rocio	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Ortega Marcos, María	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Arbeloa Roch, María Isabel	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Crespo Sarasa, Cristina	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Ripalda Unciti, Amaya	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Lopez Nava, Sara	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Boadu, Comfort	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Ballester Belcos, Carolina	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Oña Pilicita, Silvana Maribel	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Lozano Cabrera, M <sup>a</sup> Ursula	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Begoña Gonzalez Barajas	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Machain Martiarena, Marta	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Urzaiz Fraile, Nieves	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
León Corres, M <sup>a</sup> Victoria	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Catalán Adrián, Asunción	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Legarra Eguzquiza, Mercedes	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Palacios Velilla, M <sup>a</sup> Dolores	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Berengaña Ibero, Mirentxu	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Carricas Torres, Ana	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Torres Zuleta, Edyluz	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Lerga Garayoa, Raquel	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Aniz Aldasoro, Maite	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
López Sarasola, M <sup>a</sup> Lourdes	Ezetsia	5. oinarria, f) Egiatzatzeko agiriak eta fakturak falta dira
Cerezo Rios, M <sup>a</sup> José	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Otero Fernández, Agustina Lucia	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Fraisoli Novoa, Ainoa	Ezetsia	5.2 oinarria b). Agiriak falta dira
García Correa, Olga Maritza	Ezetsia	8.,2 oinarria. 30 puntu baino gutxiago izatea
Ayucar Berruete, Nuria	Ezetsia	5. oinarria, f) Egiatzatzeko agiriak eta fakturak falta dira
Nazabal Regueira, Itziar	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Urteaga Arrizabalaga, Jaione	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Lopez Subiza, Raquel	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea
Prieto, Edurne	Ezetsia	2. oinarria, c). Ez berritzailea

## DIRULAGUNTZAK ESKURATU DITUZTEN ESKARIAK

Eskatzailea	Jarduera
Calatayud Alvarez, Ana	Eramateko etxeko otorduak
Martínez Durandez, Ana María	Te-denda Iruñeko alde zaharrea
Gurrea Barricarte, Montserrat	Hezkuntza- eta kultura-jarduerak Murtxanten
Morales Ocaña, M <sup>a</sup> José	Elikagai izoztuak soltean Antsoainen
Prieto Pérez, Susana	Bisitaldi gidatuak eta jatorrizko izendapena duten produktuen denda
Gonzalez Larrea, Sonia	Bidai agentzia Orkoienen
Aznarez Alvarez, María	Eraikuntzarako laneko arriskuen prebentzioa
Oiffa, Zineb	Marokoko altzari eta osagarrien salmenta
Martine Lenderink, Lourine	Ostatu-jatetxe-denda-internet Lizarran
Zabaleta Zabaleta, María	Kiroldegia Leitzan
Iparragirre Perurena, Ainhoa	Ziberkafea
Delgado Olivera, Zulema	Ludoteka eta umeak eramatea
Ruiz Abascal, Marta	Ileapaindegia, erlaxazioa eta edergintza-aretoa
Garrues Iñiguez, Ana Isabel	Eguzki-energia sortzeko panelak instalatzea
Aranaz Hernández, Idoya	Aukera berdintasuna
Arroniz Marín, Ainoa	Ikus-entzunezkoen produkzio-etxea
Urtasun Vidarte, Maider	Enpresa farmazeutikoa
Arce Miró, Joana	Barne-dekorazioa eta diseinurako estudioa Añorben
García Astiz, Esperanza	Abusuak jasan dituzten umeak diagnostikatu eta laguntzeko kabinete psikologikoa
Oneca Agurruza, María	Elikagaien analisi sentzoriala
Arrese Alvarez, Miren	Software librea sustatzeko informazioa eta komunikazioen teknologiako kontsultategia
Cárcamo Bravo, Susana	Naturguneetarako plan eta proiektu teknikoak
López Aramendia, Diana	Podologia San Adrianen
Bernal Rodriguez, Sara	Kontsultategi juridiko soziala
Mendizabal Allika, Itxaso	Belar-denda Donezteben
Arizala Lacalle, Edurne	“Comercio a mano” sareko denda bat Mendigorrian
Salinas Gomez, Aranzazu	Botika Lazagurrian
Yanci López, Cristina	Hautzaindegia Aiegin

Dirulaguntzak emateko irizpideak, kasu hone-tan ere, laguntza emateko deialdian ezarritakoak izan ziren. Balorazio batzordeak, irizpide horiek

aplikatuz, onartutako eskari bakoitzari puntuazioa eman zion eta ondoko taulan agertzen diren zen-batekoak ematea proposatu zuen.

Eskari zk.	Eskatzailea	Jarduera	Puntuazioa	
5	Martínez Durandez, Ana María	Te-denda Iruñeko alde zaharrear	42,5	2.000€
12	Prieto Pérez, Susana	Bisitaldi gidatuak eta jatorrizko izendapena duten produktuen denda	40,0	1.215,5€
22	Oiffa, Zineb	Marokoko altzari eta osagarrien salmenta	45,0	2.000€
24	Martine Lenderink, Lourine	Ostatu-jatetxe-denda-internet Lizarran	46,0	2.000€
27	Zabaleta Zabaleta, María	Kiroldegia Leitzan	52,5	2.000€
32	Ruiz Abascal, Marta	Ileapaindegia, erlaxazioa eta edergintza-aretoa	43,5	2.000€
35	Garrues Iñiguez, Ana Isabel	Eguzki-energia sortzeko panelak instalatzea	68,5	2.000€
38	Arroniz Marín, Ainhoa	Ikus-entzunezkoen produkzio-etxea	48,0	2.000€
39	Berasategui Garmendia, Maider	Enpresa farmazeutikoa	42,5	2.000€
51	Oneca Agurruza, María	Elikagaien analisi sentsoriala	46,0	2.000€
53	Arrese Alvarez, Miren	Software librea sustatzeko informazioa eta komunikazioen teknologiko kontsultategia	57,0	2.000€
60	Cárcamo Bravo, Susana	Naturguneetarako plan eta proiektu teknikoak	53,5	2.000€
61	López Aramendia, Diana	Podologia San Adrianen	45,0	2.000€
66	Bernal Rodríguez, Sara	Kontsultategi juridiko soziala	46,0	2.000€
74	Arizala Lacalle, Edurne	"Comercio a mano" sareko denda bat Mendigorrian	42,5	
80	Yanci López, Cristina	Hurtzaindegia Aiegin	40,01.215,5€	

3. Gauza bera 148/2005 Foru Aginduaren araberako deialdira aurkezturiko 4 eskariei buruz.

Azkenik, aipatu deialdira ondoko eskariak aurkeztu ziren:

ZK.	Eskatzailea
1	Miguel Alfageme, M <sup>a</sup> Sagrario
2	Aniz Aldasoro, Maite
3	Arteaga Veliz, Lucitania
4	Campos Rodríguez, Mónica

Horietatik, Maite Aniz Aldasoro andrearen eskaria ez zen onartu deialdiaren 3.oinarria ez betetzeagatik eta 4. oinarriko i) letran eskatzen den dokumentazioa ezin izan zuelako ekarri.

Beste eskariak onartu ziren, deialdian ezarritakoa kontuan hartuz, eta eskatutako zenbateko osoa eman zitzaizen. Zenbatekoak ondoko taulan agertzen dira:

Eskatzailea	Zenbatekoa
Miguel Alfageme, M <sup>a</sup> Sagrario	(237,5 euro).
Arteaga Veliz, Lucitania	215 euro
Campos Rodríguez, Monica	900 euro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, Irunberriko San Isidro egoitzaren okupazio mailari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Irunberriko San Isidro egoitzaren okupazio mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-

tara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Irunberriko San Isidro egoitzako tokien okupazioei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zer proposatu du Gizarte Ongizate Departamentuak toki horiek okupatzeari begira?

Gizarte Ongizate Departamentuaren asmoa da toki horiek profil psikogeriatrikoa duten pertsonen laguntzarako erabiltzea.

Proposamenen bat badago, zein da?

Proposamena da Irunberriko San Isidro egoitzaren jabe den entitatearekin itun bat egitea psikogeriatriako 30 toki betetzeko.

Noiz jarriko da abian akordioa, hitzarmena edo ezarri nahi den formula?

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua eta San Isidro egoitzaren jabe den entitatearen arteko negoziazio prozesua abian da; hala ere, ezin da alde zuzenik esan noiz lortuko den akordioa eta ondorioz noiz abiatu ahal izanen den zerbitzu hori.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

**Galdera, Infanta Elena zentroaren okupazio mailari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Infanta Elena zentroaren okupazio mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Infanta Elena zentroan izan den baja kopuruari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbat baja baimendu ditu 2004an eta 2005ean Infanta Elena zentroko eguneko zentroan?

2004an 3 baja baimendu ditu.

2005ean 2 baja baimendu ditu.

2.- Zentro horretan baja emandako zenbat pertsonak hartu zuten alta beste zentro batzuetan eta zein dira zentro horiek?

2004an baja emandako pertsonetatik, batek zentro bereko egoitzako plaza bat bete du, beste bat etxera joan zen bere borondatez baja eman ondoren, eta hirugarrena heriotzagatiko baja izan zen.

2005ean baja emandako bi pertsonetatik, bat Amma Mutilva zaharren egoitzan sartu zen, eta besteak bere borondatez baja eman zuen, bere jaioterrira itzultzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, Ramón y Cajal zentroaren okupazio mailari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Ramón y Cajal zentroaren okupazio mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Ramón y Cajal zentroan izan den baja kopuruari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbat baja baimendu ditu 2004an eta 2005ean Ramón y Cajal zentroko eguneko zentroan?

2004an Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak 23 baja baimendu ditu.

2005ean Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak 10 baja baimendu ditu.

2.- Zentro horretan baja emandako zenbat pertsonak hartu zuten alta beste zentro batzuetan eta zein dira zentro horiek?

2004an, baja izan ziren 23 pertsona horietatik, 18 Carmen Aldave egoitzara joan ziren, 3 Ramón

y Cajal egoitzara joan ziren, bat hil zen eta beste bat borondatezko baja izan zen.

2005ean, izan ziren 10 bajetatik, 8 Ramón y Cajal egoitzara joan ziren, bat Landazabal zaharretxera joan zen eta beste bat beste erkidego batera joan zen.

3.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbat baja baimendu ditu 2004an eta 2005ean Ramón y Cajal zentroko egoitzan modu ez iraunkorrean daudenen artean?

2004an Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak 10 baja baimendu ditu.

2005ean Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak baja bat baimendu du.

4.- Zentro horretan baja emandako zenbat pertsonak hartu zuten alta beste zentro batzuetan eta zein dira zentro horiek?

2004an, izan ziren 10 bajetatik 8 Carmen Aldave egoitzara joan ziren, eta 2 Ramón y Cajal egoitza iraunkorrera joan da.

2005ean baja hartu duen pertsona Ramón y Cajal egoitza iraunkorrera joan da

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, alde zaharretan etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak alde zaharretan etxebizitzak zaharberritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu

dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du alde zaharretan etxebizitzak zaharberritze-ari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

2005. urtean Departamentu honetara sartu den ukitutako etxebizitzaren eta espedienteen kopurutik ondorioztatzen denaren arabera, 142/2004 Foru Dekretua indarrean sartzeak ez du eragin esanguratsurik ekarri aipatu urte horretan.

**ZAHARBERRITZEA**

2005	Behin-behineko kalifikazioa	
	Espediente kopurua	Etxebizitza kopurua
Urtarrila	59	169
Otsaila	70	335
Martxoa	108	400
Apirila	104	285
Maiatza	120	386
Ekaina	201	1009
Uztaila	70	313
Abuztua	83	388
Iraila	108	415
Urria	106	386

Azaroa	109	402
Abendua	261	2274
Guztira	11.399	6.762

Nola nahi ere, urtarrilaren 9ko 5/2006 Foru Dekretuaren 1. artikulua honakoa ezarri du: "eranskin honek indarra hartu baino lehen emandako bizigarritasun-zedula izan duten etxebizitzek berau berritzea dutela, betiere, zedula eman ondoren ez badute eraikin berriekin aldera daitezkeen eraberritzeko edo zaharberritzeko obrarik egin".

Azkenik, komeni da argitzea gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzaren zaharberritzeak ez duela esan nahi inolako baldintza edo betekizunik gabe bizigarritasun-zedula epe mugarik gabe ematea; aitzitik, asmoa da behar diren laguntza publikoak emanda etxebizitzaren zaharberritzeak bultzatzea, horrela pixkanaka gure hirietatik gutxieneko baldintzarik ere ez duten etxebizitzak desagerrarazteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006eko urtarrilaren 30ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

## **Galdera, abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioa zertan den jakitekoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioa zertan den jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana

Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako lurraldean abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazioari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Azken egun hauetan, maiz agertu da egunkarietan abiadura handiko trenari buruzko informazioa. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakia dago, alegia, euskal Y-aren obrei ekitea Estatuarekin finantzaketa-akordio bat sinatuta. Bestalde, foru gobernuaren iritzia daude; hain zuzen ere, antzeko formula bati atxiki nahi zaizkio Abiadura Handiko Trenaren korridorea egiteko Nafarroan.

Parlamentari honen ustez, Nafarroako Gobernuak, azpiegitura hau Nafarroan garatzeari dagoki-



onez, berandu iritsi da argi definitzera nola, nondik eta zein modutan komunikatu behar den bide estrategiko hau Euskal Autonomia Erkidegoarekin, eta, bestalde, obra nola finantzatu den.

Askotan, Iruñeko geltoki berria proposatzeko eta trenbidearen kiribilgunea deitu izan dena sortzeko kezka soilarekin, udalek, Nafarroako Gobernuak eta Sustapen Ministerioak osaturiko batzorde politiko bat sortzeko iradokizuna egin dugu. Proposamen hori ez da aintzat hartu. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu ondokoei erantzutea.

1.- Zein egoeratan dago Nafarroako abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazio administratiboa?

2.- Zein urrats eman dira Sustapen Ministerioarekin, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako pasabidearen proiektuaren epeei eta haiek betazteari dagokienez?

3.- Talde honi interesatzen zaio ezagutzea Herrilan Departamentuan azpiegitura honi buruz dagoen dokumentazioa.

Erantzuna:

Galderaren sarreran egin diren baieztapenak direla eta, honakoa adierazi behar da:

a) Gezurra da Nafarroako Gobernuak berandu iritsi dela definitzera nola eta nondik komunikatu behar den bide estrategiko hori Euskal Autonomia Erkidegoarekin.

1997an modu argian zehaztu zen, hau da, orain 9 urte, Sustapen Ministerioak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean egindako Nafarroako abiadura handiko trenbide-korridorearen trazaduraren alternatibei buruzko azterlanean jasotako ondorioetan, Nafarroako abiadura handiko korridorea eta euskal Y-aren arteko lotura egin behar dela Zuasti (Iruñeko iparraldean) eta Gipuzkoako adarra izenekoaren puntu batean.

b) Gezurra da IU-Ezker Batuak formalki aipatu batzorde politikoa sortzeko proposamena egin duela.

Hala ere, eta galderan adierazitakoa gorabehera, aipatu "batzorde politikoa" 2004ko martxoaren 10ean sortu zen, hau da orain dela bi urte eta erdi. Nafarroako Gobernuak, Sustapen Ministerioak, Renfek eta Iruñeko, Zizur Zendeako eta Zizur Nagusiko udalek osatzen dute aipatutako batzordea. Batzordea sortu zen Iruñeko trenbidearen kiribilgunea kentzeko eta abiadura handiko geltoki berria diseinatzeko eta garatzeko, baita azken hau hiri ingurunean integrazteko ere.

Hasierako lanak, oso aurreratuta daudenak eta komunikabideetan asko zabaldu direnak,

gutxi berru behin betiko dokumentuak izanen dira.

Aurreko guztia esanik, ondokoa ere adierazi beharra dago:

1) Nafarroako abiadura handiko tren planifikatzea, eraikitzea eta horren proiektua egitea Estatuko administrazio orokorraren eskumena da, Sustapen Ministerioaren bidez gauzatu beharrekoa.

Dena den, Nafarroako Gobernuak beti ahalik eta laguntza gehien eman eta eskaini dio Sustapen Ministerioari trenbide azpiegitura hori garatzeko.

2) 1997tik 2006ra Sustapen Ministerioak, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, abiadura handiko tren eraikitzeke obrei berehala ekiteko behar zen dokumentazio tekniko guztiaren prestakuntzan aurrerapen nabarmenak egin zituen.

#### Zaragoza – Castejón zatia

– Bide-trazatuaren azterlan informatiboa, erredaktatua.

– Ingurumen eraginaren adierazpena: onesteko dago

#### Castejón – Iruñerria zatia

– Trazaduraren azterlan informatiboa: 2004an onetsia

– Ingurumen eraginaren adierazpena: 2004an onetsia

#### Iruñerriko zatia. Trenbidearen kiribilgunea kentzea

– Bide-trazatuaren azterlan informatiboa: 2004an onetsia

– Ingurumen eraginaren adierazpena: 2004an onetsia

– Plataforma eraikitzeke proiektua: 2004an kontratatua, erredakzioa azken fasean dago.

#### Iruñerria – "euskal Y-a" zatia

– Trazaduraren alternatibei buruzko azterlana: 1997an onetsia

3) 2002ko abenduaren 17an, Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak Nafarroako garraio azpiegiturari buruzko akordioa sinatu zuten. Bertan zehaztasun handiz ezartzen da 2010. urterako eraikita egonen zirela Nafarroako abiadura handiko korridorea Zuastiraino, Iruñeko iparraldean, eta abiadura handiko geltoki berria.

Begi bistakoa denez, akordio horretan ez zen zehaztu euskal Y-arekiko loturari zegokion azken zatiaren eraikuntza; izan ere, jarduera horrek, epe aldetik, akordioaren norainokoa gaitzen zuen, 2010. urtea alegia.

4) 2004ko martxoaren 10ean, hurrengo hauek elkarlanerako akordio bat sinatu zuten: Sustapen Ministerioa – Azpiegituren estatu idazkariak, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko, Zizur Zendeako eta Zizur Nagusiko udalek. Akordioa zen dokumentu bat erredaktatzeko Iruñeko trenbidearen kiribilgunea kentzeak ukitutako eremuaren kudeaketari eta hirigintza-planeamenduari buruz eta abiadura handiko geltoki berriko ingurunea garatzeari buruz.

Hori guztia azalduta, galderak eskatutako atalak zehaztuko dira.

1.- Zein egoeratan dago Nafarroako abiadura handiko trenaren proiektuaren tramitazio administratiboa?

Nafarroako abiadura handiko trenaren proiektuak duen zati bakoitzaren egoera administratiboari buruzko informazio publikoa honakoa da:

- Nafarroako Gobernuak, 1997ko urtarrilaren 7ko erabakiaren bidez, behin betikoz onetsi zuen “Iruñerrian, Noaingo akueduktuaren eta Zuastiren artean, trenbidearen azpiegiturarako lurren erreserba egiteko Udalez Gaindiko Proiektu Sektoriala.” Erabaki hau 1997ko urtarrilaren 22ko 10. NAOon argitaratu zen.

- Zaragoza – Castejón zatia Zati horri buruzko azterlan informatiboa behin eginda, eta informazioa jendaurrean eta era ofizialean eman ondoren ( 2003ko apirilaren 28ko 101. EAOn argitaratu zen iragarki baten bidez), 2003ko azaroan, Sustapen Ministerioak Ingurumen Ministerioari bidali zion ingurumen eraginaren adierazpena egin zezan, baina oraindik ez du eman.

- Castejón – Iruñerria zatia Zati horri dagokion azterlan informatiboak Ingurumen Ministerioak emandako ingurumen eraginaren adierazpena badu (2004ko maiatzaren 14ko 117. EAOn argitaraturiko ebazpena), baita Sustapen Ministerioaren jendaurreko eta era ofizialeko informazioaren behin betiko onespina (2004ko abuztuaren 9ko 191. EAOn argitaraturiko ebazpena).

- Iruñerriko trenbide sare berria: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria. Zati horri dagokion azterlan informatiboak Ingurumen Ministerioak emandako ingurumen eraginaren adierazpena du (2004ko ekainaren 30ko 157. EAOn argitaraturiko ebazpena), baita Sustapen Ministerioaren jendaurreko eta era ofizialeko informazioaren behin betiko onespina (2004ko abuztuaren 9ko 191. EAOn argitaraturiko ebazpena).

- 2004ko maiatzean, Sustapen Ministerioak honako proiektuaren laguntza teknikoa esleitu zuen: “abiadura handiko ipar-ekialdeko korridorea eraikitzeko proiektua, Iruñerriko trenbide sare

berria: trenbidearen kiribilgunea kentzea. Plataforma.” Proiektu hori idazteko fasean dago.

- 2003ko apirilean, Herrilan Zuzendaritza Nagusiak lehiaketa bat deitu zuen, “Iruñeko geltoki berriaren hirigintza diseinurako ideia-lehiaketa” hain zuzen, eta 2004ko otsailean ebatzi zen. Lehiaketa honen lurralde-eremuan, Iruñerriko tren azpiegiturarako lurzoruak gordetzeko udalez gaindiko plan sektorialaren erreserba-guneari dagozkion lurzoruak sartu ziren (plan hori Nafarroako Gobernuak onetsi zuen 1997ko urtarrilaren 7an). Horietaz gain, egungo geltokia eta trenbidearen kiribildua kentzean libre geldituko diren lurzoruak ere sartuko dira.

- 2004ko martxoaren 10ean, Iruñeko abiadura handiko geltoki berriko inguruaren garapenean, eta trenbidearen kiribilgunea kentzeak ukitutako eremuaren kudeaketan eta hirigintza-planeamenduan interesaturik dauden administrazioek elkarlanerako protokolo bat sinatu zuten. Honako administrazio hauek sinatu zuten protokoloa: Sustapen Ministerioak, RENFEk (gaur egun, ADIF), Nafarroako Gobernuak, eta Iruñeko, Zizur Zendeako eta Zizur Nagusiko udalek.

- Elkarlanerako protokoloa sinatu zuten administrazioen eta erakundeen aho batezko adostasunarekin, “Iruñeko etorkizuneko abiadura handiko geltokiaren inguruaren hiri-garapenerako udalez gaindiko plan sektoriala” idazteko lanak esleitu ziren, Herrilan zuzendari nagusiak irailaren 27an emandako 503/2004 Ebazpenaren arabera.

2.- Zein urrats eman dira Sustapen Ministerioarekin, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako pasabidearen proiektuaren epeei eta haiek betetzeari dagokienez?

Erantzunaren sarreran zehaztu denez, 2002ko abenduaren 17an sinatu zen Sustapen Ministerioarekin elkarlanerako akordioa, eta horretan, Ministerioak proiektua 2010erako exekututzea eta abian jartzea lehenetsi zuen.

Dokumentu horren kopia erantsi dugu.

3.- Talde honi interesatzen zaio ezagutzea Herrilan Departamentuan azpiegitura honi buruz dagoen dokumentazioa.

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan, aurreko atalean aipatutako agiriei dagokien dokumentazio publiko guztia dugu, eta galdera egin duen parlamentariaren eskuera dago.

Iruñean, 2006eko urtarrilaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:  
Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, arantza bifidoaren unitatea ezartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak arantza bifidoaren unitatea ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina ospitalean arantza bifidoaren unitatea sortzeko azterlanari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Berriki, eta arantza bifidoaren unitate bat sortzeko egokitasuna baloratu baino lehen, Osasun

Publikoaren Institutuak eritasun horrek duen prebalentziari buruzko azterlan bat hasi du.

Aldez aurretiko datuen arabera, azken hiru urte hauetan ez da arantza bifidoaren kasu berririk izan.

Aurreko batean jakinarazi zitzaizunez, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Kirurgia Pediatrikoaren Zerbitzuaren bidez ematen zaie osasun laguntza arantza bifidoaren ondorioz arazoak dituzten pertsonei. Bertan ematen den laguntza kalitatezkoa da, eta gaixoei laguntza egokia emateko beharrezkoa denean, elkarlan erraz eta estua izaten da beste espezialitate batzuetako fakultatiboekin eta beste departamentu batzuetako profesionalekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Foruzaingoko herritarrentzako arreta bulegoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Foruzaingoko herritarrentzako arreta bulegoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Foruzaingoko herritarrentzako arreta bulegoei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

2006. urtean aurreikusita dago beharrezkoak diren egokitzapen obrei ekitea Foruzaingoarean herritarrentzako laguntza bulegoak pixkanaka irekitzen hasteko Lizarran, Tafallan, Altsasun eta Baztanen.

Hori egiteak ekarriko dituen gastuei aurre egiteko, indarrean dagoen gastuen aurrekontuak berariazko kontusail bat aurreikusten du, "herritarrentzako laguntza bulegoetan obrak" izeneko 051000-02100-6020-132100 kontusaila hain zuzen ere, 450.000 euroko zuzkidura duena.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, "Tuteran inbertsio kultural eta turistikoak egiteko maileguak" izeneko kontusailari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak "Tuteran inbertsio kultural eta turistikoak egiteko maileguak" izeneko kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Tuterako Kultur Etxerako den 12 milioi euroko kontusailari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuako lehendakariaren erantzuna.

1.- Zein epe jarri behar du Nafarroako Gobernuak mailegu horren dirua itzultzeko?

2006ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 18/2005 Foru Legearen xedapen gehigarriak, Tuteran, Orreagan eta Atarrabian inbertsio kultural eta turistikoak egiteko maileguak ematea arautzen duena, honakoa esaten du: "Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Tuteran, Orreagan eta Atarrabian inbertsio kultural eta turistikoak finantzatzeko ematen dituen maileguetarako beharrezkoa izanen da, aldeztu aurretik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren adostasuna, hark finkatuko baititu mailegu horien baldintza eta ezaugarriak, egoera ekonomiko-finantzarioaren arabera".

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emandako informazioaren arabera, epea, dirudienez, 20 eguneko izanen da 4 urteko ezaldiarekin.

2.- Zenbateko interesa jarri behar du Nafarroako Gobernuak mailegu horretan?

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emandako informazioaren arabera, interes tasa zero izatea aztertzen ari gara.

3.- Zenbat udali jakinarazi die Nafarroako Gobernuak mailegu modalitate horretara biltzeko aukera dutela?

Ez da deialdi irekia, baizik eta Nafarroako Parlamentuak onartutako aurrekontuko lerro izendun

bat, Ogasun Publikoari buruzko Legea indarrean sartu zenetik Nafarroako aurrekontuetan agertu izan diren beste lerro izendunen antzera; beraz, ez dago deialdi publikorik egiterik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

## Galdera, Nafarroako Estatistika Institutuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak Nafarroako Estatistika Institutuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du Nafarroako Estatistika Institutuari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Zein da Nafarroako Estatistika Institutuaren jarduketa esparrua?

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 44.21 artikulua Nafarroaren eskumen osoen artean "Nafarroarako interesgarria den estatistika" ezartzen du.

Horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea onetsi zuen.

Lege horren II. tituluak "Nafarroako estatistika sistema" arautzen du eta II. kapituluaren honakoa agertzen da:

"Nafarroako Estatistika Institutua

30. artikulua. Izaera eta atxikipena.

1. Nafarroako Estatistika Institutua Nafarroako Foru Komunitatearen estatistika organoa da, Nafarroarako interesgarria den estatistika jardueraren arduraduna.

2. Nafarroako Estatistika Institutuaren izaera eta egitura organikoa Nafarroako Gobernuak definituko ditu Foru Dekretuaren bidez.

3. Nafarroako Estatistika Institutua Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikiko zaio.

31. artikulua. Eginkizunak.

1. Nafarroako Estatistika Institutuaren eginkizunak ondoko hauek dira:

a) Nafarroarako interesgarria den estatistika jarduera publikoa sustatu, zuzendu eta koordinatzea.

b) Nafarroarako interesgarria den estatistika jarduera publikoaren oinarri, xede eta gainerako xehetasunak zabaltzea.

c) Foru Komunitateko Administrazio eta Toki Administrazioetako Estatistika Sistemaren gainerako unitateen lankidetzaz Nafarroako Estatistika Planaren Aurreproiektua egitea.

d) Datuen sailkapenerako eta emaitzen aurkezpenarako kontzeptu, definizio, sailkapen, izen eta kodeei buruzko arauak proposatzea, horien erabilera bultzatzea Nafarroako estatistika jardueran eta koordinazio metodologikoa sustatzea toki erakundeen, komunitate autonomoen, Estatuko Administrazio Orokorren, Europako Batasunaren eta beste erakundeen estatistika jarduerarekin.

e) Estatistikako Urteko Programetan bere esku uzten diren estatistika eragiketak egitea.

f) Demografia, ekonomia eta gizartearen estatistikari buruzko sistema integratuak burutzea.

g) Estatistika unitateen direktorioak burutzea eta lurralde, populazio, etxebizitza eta jarduera ekonomikoari buruzko oinarrizko parametroak eta markoak sortzeko eta eguneratzeko behar diren errolda eragiketak egitea.

h) Estatistika ikerketak eta alor horretan jarduten duten langileen trebakuntza zein lanbide presakuntza bultzatzea.

i) Foru Komunitatearen Administrazioa ordezkatzea toki unitate eta erakundeekin, autonomi erakundeekin zein estatuko edo nazioartekoekin izan ditzakeen harremanetan eta estatistika jardueran haiekiko koordinazioa eta elkarlana sustatzea. Ordezkaritza lan horretan departamentu eta laguntza izan du eta halaxe behar denean haien esku utziko du bere ordezkaritza.

j) Estatistika Sistemaren unitateekin batera sekretu estatistikoa aplikatu eta errespetatu dadin zaintzea.

k) Nafarroari buruzko estatistiken zabalkundea bultzatzea.

l) Estatistika jarduera tresna edo xedetzat harturik Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzen duen hitzarmen edo akordio proiektu guztiei zein zerbitzu kontratazioei buruzko txostenak, nahitaezkoak, prestatzea.

m) Nafarroako Foru Administrazioaren unitateek gauzatu behar dituzten estatistika eragiketari buruzko txostenak prestatzea, baldin haien ardurako administrazio harremanetatik at diren pertsona fisiko nahiz juridikoei informazioa eskatzea bada-karte.

n) Nafarroako Estatistika Planaren barreneko estatistika eragiketak egiteko beharrezko diren erregistroak ukitzen dituzten galdeketa, administrazio prozedura eta informatika aplikazioei buruzko txostenak prestatzea.

o) Foru Lege honek araututako estatistika jarduera burutzen duten unitateek estatistikak egiterakoan erabilitako galdeketa zein metodoen eraginkortasuna neurtzeko ikerketak aurrera eramatea.

p) Legearen barrenean agintzen zaion beste edozein estatistika jarduera.

2. Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu bidez, artikuluko honen 1. idatzian araututako eginkizunak gehitu ahalko ditu.

32. artikulua. Baliabide tekniko eta pertsonalak.

Nafarroako Estatistika Institutuak behar diren baliabide tekniko, pertsonal eta ekonomikoak izan behar dituzte bere eginkizunak garatzeko eta, batez ere, datuen konfidentzialtasuna eraginkortasunez babesteko sekretu estatistikoaren bidez.

1. Estatistika jarduerako alor berezietako langile espezializatuak izan behar dituzte. Horiek hautatzeko nahiz beraien lan egoera arautzeko dagokion legedira joko da.

2. Bere eginkizunak betetzeko baliabide teknikoak eta instalazio egokiak izan behar dituzte, batipat sekretu estatistikopean dagoen informazioa babesteko.

3. Era autonomoan eta etengabe bere eginkizunak betetzeko baliabide informatikoak izan behar dituzte.

Era berean, Nafarroako 2003-2006 urteetako estatistika planari buruzko urriaren 28ko 28/2002 Foru Legeak, aipatu 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak garatzen dituen, 4. artikuluko honakoa ezartzen du:

“Nafarroako Estatistika Erakundeak estatistika plana eta estatistikarako urtean urteko programak bultzatuko ditu eta helburu horrekin honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Estatistikako Urteko Programarako proiektuak prestatu eta horien izapidaketa eta onespena bultzatu.

b) Nafarroako Administrazio Publikoek Estatistika Planak eta Estatistika Urteko Programek haien esku utzitako estatistika eragiketarako behar dituzten aholkularitza teknikoko zerbitzuak eman.

c) Foru Lege honek eta berau garatzen duten Estatistika Urteko Programek haren esku utzitako estatistika jarduera instrumentalak egin edo proposatzea.

d) Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak estatistikak erregulatzeko aurreikuspenak dituen arau teknikoaren proiektuak prestatu eta horien izapidaketa eta onespena bultzatu; Estatistika Planak eta berau garatzeko emandako Estatistika Urteko Programek haren esku utzitakoak alegia.

e) Estatistika Plana eta Estatistika Urteko Programen aginduz estatistikak egin behar dituzten Nafarroako Administrazio Publikoek estatistikari buruzko legedia betetzen dutela zaindu.

f) Nafarroan, informazio eta dokumentazio estatistikoaren inbentarioa eta haren mantenimendua egin.

g) Nafarroako Estatistika Planean sartuta dauden estatistiken jarraipena egin.

h) Estatistikaren arloan behar diren harremanak sustatu foru lege honen 1. artikuluan aipatzen diren entitateekin.”

Bere eskumeneko zein estatistika lanetan egiten du sexuaren araberrako bereizketa?

Nafarroako Estatistika Institutuak pertsoneri buruz egiten dituen lan estatistiko guztietan generoaren ikuspegia agertzen da; adibide gisa honakoak aipa daitezke: estatistika demografiko guztiak <http://www.cfnavarra.es/estadistica/redie.asp?qry=01> lan-merkatuari buruzkoak <http://www.cfnavarra.es/estadistica/redie.asp?qry=0305> eta oro har, Nafarroako gizarteari buruzko informazio estatistika guztiak.

Adibiderik aipagarriena Nafarroako Estatistika Institutuak egindako “genero adierazleak” izenburuko azterlana da, interneten hurrengo helbidean kontsulta daitekeena: "<http://www.cfnavarra.es/estadistica/redie.asp?qry=0303>" Adierazle horiek saiatzen dira islatzen Nafarroako gizartearen hainbat arlotan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak. Ikuspegi zabalak eskaintzeko asmoz honako gaiak buruzko adierazleak garatu dira: osasuna, hezkuntza, lana eta soldadak, demografia, justizia, bizi baldintzak, aisia eta kirola, eta informazioaren teknologiak.

“Buletin estatistikoak” izenburupean institutuak argitaratutako publikazio monografikoak ere adibide aipagarriak dira. Horien artean, generoari dagokionez, nabarmenena “emakumea Nafarroako gizartean” izeneko da, [http://www.cfnavarra.es/estadistica/boletines/boletin\\_08.pdf](http://www.cfnavarra.es/estadistica/boletines/boletin_08.pdf) webgunean ere zabalduta dena.

Salbuespen bakarrak soldatei buruzko estatistikak dira. “Socialistas del Parlamento de Navarra” taldeari atxikitako Aurelia Lumbreras Iñigo andreak lehen ere galdetu izan du gai horren inguruan, azken aldia 2005eko urriaren 13an, eta Nafarroako Estatistika Institutuaren erantzuna idazki honi erantsi zaio.

Premia al ditzake bere ginetik dauden erakundeak sexuaren araberrako bereizketa egin dezaten lantzen dituzten estatistiketan?

Lehenengo galderan esanenez, Nafarroako estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legeak ezartzen du Nafarroako Estatistika Institutuaren eginkizunetako bat honako hau dela:

“Datuen sailkapenerako eta emaitzen aurkezpenarako kontzeptu, definizio, sailkapen, izen eta kodeei buruzko arauak proposatzea, horien erabilera bultzatzea Nafarroako estatistika jardueran eta koordinazio metodologikoa sustatzea toki erakundeen, komunitate autonomoen, Estatuako Administrazio Orokorraren, Europako Batasunaren eta beste erakundeen estatistika jarduerarekin.”

Agindu hori garatzeko, Nafarroako Estatistika Institutua etengabe elkarlanean ari da beste estatistika erakundeekin; batez ere, Estatistikako Institutu Nazionalarekin, estatistika informazioa elkar trukatzeko esparru-akordio baten bidez. Gainera, parte hartzen duen lan guztietan sexuaren araberrako bereizketa egitea proposatzen da, estatistikak horretarako aukera ematen badu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Julio Caro Barojaren oroimenez antolatutako erakusketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Julio Caro Barojaren oroimenez antolatutako erakusketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Madrilgo Cuartel Conde Duque eraikinean egindako "Memoria de Julio Caro Baroja" erakusketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2005eko abendutik aurrera Madrilgo Cuartel Conde Duque eraikinean ikusgai egon den "Memoria de Julio Caro Baroja" izeneko erakusketa Kultur Ospakizunen Estatuko Elkartek antolatuta du. Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo Departamentuak, aipatu elkarte horrengandik, ez du eskabide formalik jaso erakusketa antolatzen laguntzeko.

Bestalde, 2005ean, Nafarroako Museo Etnologikoak, Julio Caro Baroja historialari eta etnografoaren heriotzaren hamargarren urteurrena zela eta, berari buruzko erakusketa monografikoa antolatu zuen.

Foru Diputazioaren mandatuz, Julio Caro Baroja jaunak bildu zituen "Berako bilduma" izeneko 243 piezetatik, lagin adierazgarri gisa, 63 hautatu ziren erakusketan ikusgai jartzeko, orain arte jendaurrean sekulan erakutsi ez direnak. Piezak erakutsi ziren Juliok berak horiek dokumentatzeko egin zituen marrazkiak lagunduta, eta 1969ko "Un estudio de tecnología rural" izeneko artikuluan berak ezarritako diskurtsoari jarraikiz.

Erakusketa jendearentzat zabalik egon zen 2005eko ekainaren 18tik urriaren 30era, lau hila-bete baino gehiago alegia.

Hori dela eta, "Berako fondoa" izeneko osoa biltzen duen CD bat argitaratu zen. Horren kopia erantsi dugu interesgarria izan daitekeelakoan.

Bestalde, Kultura eta Turismo Departamentuak antolatzen duen Punto de Vista Zinema Dokumentalaren aurreko jaialdian, Pío Caro Baroja jaunari jaialdiaren atal bat eskaini zitzaion Espainian etnografiari buruzko zinema dokumentalaren aitzindaria izateagatik. Atal horretan Caro Barojaren 12 film eskaini ziren; bere lana bildu eta aztertzen duen liburu bat aurkeztu zen, "El documental etnográfico en España: Pío Caro Baroja" izeneko; eta bere lan dokumentalari buruzko mahai-inguru bat antolatu zen.

Bestalde, 2004ko maiatzaren 19tik abenduaren 12ra bitarte, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian "El Embrujo de los Baroja" izeneko erakusketa eskaini zen. Horretan Barojatarren fondoetako 108 pieza biltzen ziren, Pío Baroja, bere anai-arreba Ricardo eta Carmen eta honen seme-alaben Julio Caro Baroja eta Pío Caroren bizitza eta familia harremanak erakutsiz.

Aipatu erakusketa zela eta, Nafarroako Gobernuak "Navarra Cuatro Estaciones" izeneko filma berrargitaratu zuen, eta Pío Caro Baroja jaunak hitzaldia eman zuen.

2006. urteari dagokionez, eta Barojatarren inguruan egin den programazio ugariarekin bat eginez, Pío Barojaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena dela eta egin behar diren ekitaldiak programatzen ari dira. Programazio hori 2006ko bigarren hiruhilekotik aurrera egingen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 2an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón



## Galderak, Antso Handia erregeari buruzko erakusketari buruzkoak.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Antso Handia erregeari buruzko erakusketari buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du "Erresuma baten aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak" erakusketa-rekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

"Erresuma baten aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak" izeneko erakusketa Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak antolatu du Iruñeko Artzapezpikutzarekin elkarlanean; Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin; eta Diario de Navarra, Guardian Navarra eta Iberdrolaren laguntzarekin.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren ekarpena 1.000.000 eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuarena, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez, 1.688.064 eurokoa honako kontusail hauen kargura: A2001 A 2100 4300 337100 (2005ekoak) eta A2001 A2100 4300 337100 (2006koak).

Erakusketa Iruñeko Baluarte-Biltzar Jauregi eta Auditorioan egingen da, eta hiru hilabetez egonen da jendearentzat zabalik, 2006ko urtarrilaren 26tik apirilaren 30era bitarte. Ez dago aurreikusita erakusketa beste inora eramatea.

"Erresuma baten aroa" erakusketan ikusgai dauden lanetako batzuk Europako artearen maisu-lanak dira. Beste batzuk nabarmentzen dira historia ulertzeko bereziki adierazgarriak direlako edo lan enblematikoak izan arren gutxitan jarri direlako jendaurrean.

Erakusketan X. eta XIII. mendeen bitarteko 270 pieza daude ikusgai; horiek Nafarroako, Espainia-

ko, Alemaniako, Frantziako, Errusiako, Italiako eta AEBetako 48 museo, artxibo eta eliza desberdinetatik ekarri dira. Piezen artean honakoak daude: kodizeak, esmalteak, erlikiontziak, urregintzalanak, kutxa eta kutxetak, hilobietako gauzak, zigilu eta txanponak, eta erromanikoko arkitektura-eta eskultura-piezak (ama birjinak, kapitelak, mentsulak eta abar)

Erakusketan ikusgai dauden artelan guztiak apartekoak dira beren balio artistiko eta historiko-arengatik, eta horietariko batzuk nekez ikusiko dira berriro jatorrizko lekutik kanpo. Garrantzitsuen artean honakoak daude: Rodako kodizea eta Albeldakoa eta Donemiliagakoa, Leireko kutxeta arabiarra, Donemiliaga Kukulako beatoa, San Juan de la Peñako biblia, Iruñeko bibliak, Parisko beatoa, Aralarko esmalteak eta Navas de Tolosa guduko protagonista izan zen Jiménez de Rada nafarraren hilobiko gauzak. Hori guztia hartuta, Nafarroan inoiz egin den erakusketa artistikorik garrantzitsuena da, baita erdi aroari buruz Europan egin den erakusketarik garrantzitsuenetako bat ere. Ikusgai dauden piezak, balio kalkulazina dutenak, aseguruaren kontratazioari dagokionez, 185 milioi eurotan tasatu dira.

Erakutsitako lanen jatorria oso anitza da. Espainiako honako lekuetatik ekarri dira: Artxibo Historiko Nazionala, Espainiako Liburutegi Nazionala, Historiako Errege Akademia, Armadaren Museoa, Burgosko eta Huescako museoak, Barbastroko Elizbarrutiko Museoa, Leongo San Isidoren Errege Kolegiata, Donemiliaga Kukula, Santo Domingo de Silos, Santa María de Huerta (Soria) eta Valvanera monasterioak, eta Lleidako katedrala.

Nazioarteko lanak honako lekuetatik ekarri dira: Augsburgoko unibertsitatea (Alemania), New Yorkeko Metropolitan Museum, Florentziako Bargello Museo Nazionala, New Yorkeko Pierpoint Morgan Liburutegia, San Petersburgoko Ermitage Estatu Museoa, Parisko Erdi Aroari buruzko Museo Nazionala eta Frantziako Liburutegi Nazionala.

Kanpotik ekarritako lan horiez gain, garrantzia eta balio handiko beste pieza batzuk Nafarroako monasterio, eliza, museo eta bildumetatik ekarri dira: Nafarroako Errege Artxibo Nagusia, Nafarroako Museoa, Nafarroako Gobernuaren biltegi arkeologikoa, Nafarroako Jauregia, Aralarko santutegia, Iruñeko Udal Artxiboa, Iruñeko Elizbarruti-

ko Museoa, Iruñeko katedrala, Santa Maria de la Oliva monasterioa, Deikazteluko San Emeterio eta San Celedonio eliza, Lizarrako San Pedro de la Rúa eliza, Lizarrako Udala, Fiteroko Santa Maria la Real eliza, Leire monasterioa, Orreagako kolegiata, Tuterako katedrala, Vianako Udala eta Zizur Nagusiko San Andres eliza.

Erakusketa azken belaunaldiko teknologien laguntzaz paratu da, horrela lanak zentzumenen bidez hobeki goza daitezkeelako eta sortu eta erabili ziren garaiko testuinguru historikoa ulergarriagoa egiteko balio dutelako. Helburu horrekin, hogeita bost ikus-entzunezko egin dira: erakusketa aurkezteko, agiriak kontsultatzeko, animazio birtualak eta erakusketako piezarik garrantzitsuenak zehaztasunez proiektatzeko, eta Donejakue bideko irudikapen bat. Horretarako definizio handiko hamasei bideo proiektore erabiliko dira, 10.000 eta 2.200 lumenekoak. Espazioa argitzeko antzerkiko proiektoreak erabili dira.

Erakusketa dela eta, 960 orriko katalogo bat argitaratu da, bi liburukitan; hori egiten Espainiako Italiako, Frantziako eta AEBetako berrogei adituk baino gehiagok hartu du parte eta 3000 ale argitaratu dira. Horretaz gain, erakusketa bisitatzen dutenek horren edukiari buruzko azalpenak ematen dituen 34 orriko liburuxka jasoko dute; 100.000 ale argitaratuko dira.

Erakusketa dela eta ikusgai dauden honako hamar pieza hauek zaharberritu dira: Iruñeko katedraleko Redondo liburua, Rodako kodizea, Artxibo

Historiko Nazionaleko hainbat agiri, La Olivako monasterioko Antso Azkarraren hilobia, Tuterako Andre Maria Zuria, Iguaceleko burdin hesia, Jaka-ko elizbarrutiko museoko musikarien kapitela izenekoa eta Mérida de Susín-eko Santa Eulaliako paretetako hainbat margolan.

Erakusketaren ohorezko batzordearen burua Felipe printzea da eta honako hauek osatua da: Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria; Marcelino Iglesias, Aragoiko Gobernuko lehendakaria; Juan Vicente Herrera Campo, Gaztela eta Leongo Juntako lehendakaria; Rafael Gurrea, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria; Yolanda Barcina, Iruñeko alkatea; Fernando Sebastián, Iruñeko artzapezpikua; Angel J. Gómez Montoso, Nafarroako Unibertsitateko errektorea; eta Pedro Burillo, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea.

Isidro G. Bango Torviso, Madrileko Unibertsitate Konplutentseko artearen historiaren katedrati-koa, erakusketaren komisarioa da eta lansari gisa 139.354 euro jasoko ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 2an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatatzeari buruz. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Ezagutu al ditu edo ezagutzen al ditu Toki Administrazio Departamentuak irregularrak izan daitezkeen jarduketa horiek? Hala baldin bada, emandako urratsei buruzko txostena nahi dut.

Departamentuak jakin du hasi direla galderaren azalpenean aipatzen diren lurzatiaren borondatezko birzatiketa aldatzeko izapideak..

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Toki Administrazioaren Departamentuak, Buñuelgo Udalak horrela eskatuta, gaiari buruzko txosten juridikoa eman zuen.

Noiz berrikusi ditu edo berrikusiko ditu Toki Administrazioako Departamentuak gai honi buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakiak edo alkatetzak emandako ebazpenak?

Birzatiketa aldatzeko izapideei buruzko aholku-eskaerekin loturik dauden eta espedientean dauden akordio eta ebazpenak dagoeneko aztertu dira, udalak aurkeztu dituelako; aholku-eskaera egin zen unean, alkatetzaren hasierako onespenerabakia baino ez zegoen emana (prozedura ebazten ez duen izapide-egintza hutsa); beraz,

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak eskatzen duenez, hasierako onespenean udalak erabakitako jendaurreko fasea dago egiteke.

Zein neurri hartu du eta hartu behar du departamentuak salatutako irregulartasunak gauza daitezzen saihesteko?

Toki Administrazioako Departamentura bidalita espedientean ez da irregulartasunik agertzen eta horri buruzko salaketarik ere ez da jaso.

Departamentuak udalari dagoeneko bidali dio honek egin zuen kontsultari buruzko irizpena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuako eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Toki Administrazioako Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezotasuna kontrolatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Toki Administrazioako Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezotasuna kontrolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Zuñigako Udalari eragiten dioten zenbait auziri buruz. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

1. Kontrolatzen al du Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezotasuna?

Toki Administrazioako Departamentuak Nafarroako edozein toki entitateren erabakiak aztertzen

ditu aldizka, eta horren barne udal guztien egin-tzak (erabakiak edo ebazpenak) aztertzen ditu, baita Zuñigakoak ere.

2. Ezagutzen al dira bertako herritarrek salaturiko udalaren erabaki irregularrak edo legez kanpokoak? Haien xehetasunak eta departamentuak eginiko jarduketak ezagutu nahi ditugu.

Legegintzaldi honetan, Zuñigako biztanleek egindako lehen salaketa, hain zuzen ere Eltuinaga herritarren elkarrekin egindakoa, 2005eko urriaren 24an jaso zen Departamentuan eta erantzuna azaroaren 7an eman zen; erantzun horren bidez aipatu herritarrei jakinarazi zitzaizkien, horrelakoetan ohikoa denez, toki araubideari buruzko legeriak honako eskubideak onartzen dizkiela: artxiboetara sartzeko eskubidea, administrazio prozedurari buruzko araudi orokorrak eta administrazioerikiko auzien jurisdikzioari buruzkoak arautzen dituzten aurka egiteko bitartekoak erabiltzeko eskubidea (berraztertze errekurtsoak edo administrazioerikiko auzi errekurtsoak), eta auzokideen oniritzia nahiko duen berariazko foru bidea erabiltzeko eskubidea (gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian).

Kasu horretan, salaketarekin batera balizko ingurumen arazo bat aipatzen zuten bilkuren aktak gehitu ziren; hori dela eta, salaketa Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari bidali genion, kasua bazen horren inguruko neurriak har zitzan.

2005eko urtarrilaren 16an, elkarte beraren bigarren idazki bat jaso da departamentuan, 50 herritarrek izenpetua, idazkariaren kaleratzeari buruzkoa.

3. Ezagutu al du edo ezagutzen al du Toki Administrazioiko Departamentuak alkateak eta Zuñigan gehiengo duen taldeak daukaten asmoa, hain zuzen ere osatzen duten udalen multzoa abandonatzea?

Bai, ezagutzen dugu asmo hori 2005eko apirilaren 14an udalak departamentuari jakinarazi ziolako. Horretarako, 2006ko urtarrilaren 26an egin-dako ohiz kanpoko bilkuran banaketa horri buruz hartutako erabakian oinarritu zen eta, era berean, departamentuaren onespena eskatu zuen.

4. Ezagutu al du edo ezagutzen al du Zuñigako Udalak beste udal-elkarteren batean sartu nahi ote duen?

Bai; izan ere, aurreko erantzunean aipatu 2005eko urtarrilaren 26ko bilkura berean Kodesko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatean sartzeko eskatzea erabaki zen. Bilkuraren aktaren kopia departamentuari bidali zioten.

5. Ezagutzen al du departamentuak alkateak udal idazkariari bere eginkizunak kendu nahi dizkiola?

Prentsan ateratako informazioak ikusita, hori argitzeko eskatu zitzaion udalari. Horrek alkateak idazkariari bidalitako jakinarazpenaren kopia igorri zuen, abenduaren 22tik aurrera idazkariak lana utzi beharko zuela esaten zuena; horrela, alkatearen iritziz, Mues, Sorlada, Piedramillera eta Lanai-barko udalek idazkari bakarra izateko sortu zuten elkartetik banatzeari buruzko 2005eko urtarrilaren 26ko erabakia betetzen zen.

6. Departamentuaren ustez, legezkoa al da idazkaria kargutik kentzeko erabakia?

Departamentuak uste du erabakia ez dela legezkoa, eta zehazki zuzenbidez erabat deuseza dela, eskumena ez duen organo batek hartu delako; izan ere, Mues, Sorlada, Piedramillera eta Lanaibarko udalek idazkari bakarra izateko sortu zuten elkartearen banaketa oraindik ez da egin. Beraz, idazkariari dagozkion erabakiak udal-elkartek hartu behar ditu eta ez hori osatzen duten udalek. Hori horrela izanik, 2005eko urtarrilaren 26an Zuñigako Udalak hartutako erabakia banatzeko prozeduraren hasiera baino ez da, oraindik egin ez dena. Ondorioz, hori bera jakinarazi zien departamentuak udal-elkartea osatzen duten udalei 2005eko apirilaren 25ean bidalitako idazkietan.

Kontuan izan behar da Zuñigako Udalak partaide den idazkari bakarra izateko udal-elkartetik banatzeko erabakia hartu zuela Kodesko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatean sartzeko eskaerari lotuta. Mankomunitate hori, hasieran, eskaeraren alde agertu zen, baina bi baldintzekin; alde batetik, Nafarroako Gobernuaren alde aurretiko baimena izatea, eta bestetik, Zuñiga partaide den udal-elkartetik banatuta egotea. Bi baldintza horiek ez dira bete, ez gaur egun ezta 2005eko abenduaren 22an ere (urtarrilaren 26ko erabakia betetzeko alkateak idazkariari honen kargu-uztea jakinarazi zion eguna, alegia).

Halaber, kontuan hartu behar da, 2005eko abenduaren 19an Kodesko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitateak Zuñiga bertara sartzearen kontrako erabakia hartu zuela eta horren berri eman ziela departamentuari eta Zuñigako Udalari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, ingurumen, hirigintza eta etxebizitza arloan toki entitateek laguntza emateko bulegoen sarea abian jartzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak ingurumen, hirigintza eta etxebizitza arloan toki entitateek laguntza emateko bulegoen sarea abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledunak galdera egin du abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako toki entitateei laguntza emateko bulegoen sareari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Bulego horiek lanean hasteari buruzko hiru galdera egin dira:

1. Zergatik ez dira oraindik ere lanean hasi?

2003ko irailean, hau da, 35/2002 Foru Legeak indarra hartu eta sei hilabetera, departamentuak galderak aipatzen dituen bulegoak ezartzeko plan baten idazketa amaitu zuen. Plan horrek honako alderdiak biltzen ditu:

- Etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko udal bulegoen egungo egoerari buruzko diagnosia.
- Eraikinak zaharberritzeko bulegoetako eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko arduradunekiko elkarriketak.
- Nafarroako toki entitateen iritzia.
- Antolatzeko proposamenak.
- Eraikinak zaharberritzeko bulegoetako langileen eta ondarearen lan egoera eta egoera juridikoa.
- Ezarpenaren ebaluazio ekonomikoa.
- Ezarpenaren estrategia

2004ko martxoan eta apirilean bulegoen sarea osatzeari buruzko foru dekretuaren proiekturako eskema eta zirriborroa idatzi ziren.

Departamentuak, parlamentuan behin baino gehiagotan adierazi duenez, plan hori toki entitateekin adostuta tramitatzeko eta garatzeko asmoa du, horien atxikipenak baino ez baitu eraginkor bihurtuko ezarriko den sistema.

Hori dela eta, 2004ko erdialdean, harremanak hasi ziren Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, eta aipatutako azterlanak eta zirriborroak eskuratu zitzaizkion, ezartzeko estrategia eta ereduari buruzko itun faseari hasiera emateko asmoz. Federazioak oraindik ez dio bere jarrera zehaztu Departamentuari; hala ere, hori ez da harrizkoa kontuan izanik lanean ari diren eraikinak zaharberritzeko bulegoen egungo errealitatea eta balizko egoeraren konplexutasuna.

2. Aurreikusia al du Nafarroako Gobernuak, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Departamentuaren bitartez, haiek lanean jartzea?

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Departamentuaren ustez, sare hori abian jartzeak lurraldearen antolamenduaren eraginkortasuna nabarmen hobetuko luke. Hori dela eta, departamentua ahaleginduko da antolakuntza-eredu egoki, bideragarri eta itundu bat bilatzen zerbitzu horiek ezartzeko, bai tokiko administrazioari bai departamentuari berari lagunduko lieketenak. Une honetan, NASURSA izeneko enpresa publikoa, planaren proposamenei jarraikiz, funtzionatzeko balizko eredu berri baten gai ekonomiko eta finantzieroen azterketa sakona egiten ari da.

3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz jarri behar ditu lanean?

Esan denez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin adostasuna lortzen den neurrian, ezarpena zehazkiago programatu ahalko da. Departamentuak asmoa du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin hizketan berriz hasteko, baina aurretik abian jarri behar ditu honako bi proiektu garrantzitsu hauek: lurralde antolamenduko planak eta Nafarroako Lurralde Behatokia.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 2an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

## **Galdera, N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko ekimenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko ekimenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du NA-121 errepideko Etxalarko bidegurutzea hobetzeko lanei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera

Etxalarko Udalak, uztailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea hobekuntza lan batzuk egin ditzan N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzearen inguruko segurtasuna areagotzeko.

Segurtasunaren ikuspuntutik, udal horrek ondoko arriskuak ikusi ditu:

1.- Iruña-Irun norabidean, bidegurutzea baino lehen, ia 90 graduko bihurgune bat dago, malda piko batean bukatzen dena, eta hartatik hasten da, hain zuzen ere, Etxalarrerantz doan lotunerako bide-banaketa. Malda piko horrek galgatzeko eta maniobra egiteko arazoak eragiten dizkie ibilgailu astunei, hil honetako 15ean gertatu zen istripuan egiazta daitekeen bezala; izan ere, kamioi bat, kontrola galduta, bidetik kanpora erori zen. Horren ondorioz, N-121-A errepidea moztuta izan zen lau ordu baino gehiagoz.

2.- Etxalarko bidegurutzea. Bidegurutze horretantxe, Etxalarrera doan erreia, Irun-Iruña (stop) norabidean, errepidearen erdian dago. Kontuan hartu behar da erreien zabalera txikia dela, eta kontuan hartu behar da ere Iruña-Irun norabideko malda pikoak, zeinak ekartzen baitu beherantz doazenek abiadura handiak harrapatzea, eragiten duela ibilgailu askok, batez ere astunek, Etxalarrera sartzeko erreia inbaditzea bidegurutze berean

hasten den bihurgunea egiten dutenean. Arriskua heldu da ibilgailu horiek talka egin dezaketelako NA-4400 errepidera (Etxalar) doan stopean geldirik dauden ibilgailuekin.

3.- Etxalarko bidegurutzea. Bidegurutzean bertan, Irun-Iruña norabidean goazela, zuhaitz usu batzuk badaude errepidearen eskuineko ertzean, Etxalarrera sartu nahi dugunean ikusmena nabarmen galarazten dutenak. 50 metro eskaseko ikusmena zehatz daiteke Etxalarrera doan bidearen stopetik begiratuta.

Hori guztia dela eta, udal honek erabaki zuen hurrengo hobekuntza lanak egin behar direla:

1.- "Zeharkako soinu-banden" erako seinaleak ezartzea bidegurutzearen (Iruña-Irun norabidean) aurreko maldaren hasieratik (bihurgunea) Etxalarrera sartzeko geroko bihurgunearen hasieraraino, Iruñera goazela. Seinale horiek osa litezke "bidegurutze arriskutsua" seinale bertikal berariazkoa jarritz, hain zuzen ere Lesakako bidegurutzean jarri den bezala.

2.- Erreiak zabaltzea Etxalarrera sartzeko bidean, Irun-Iruña norabidean, eta errepide nagusian Iruña-Irun norabidean, behin Etxalarrera sartzeko bidea iraganik dauden irlatxoak gutxituz.

3.- Errepideko eskuineko ertzean, Irun-Iruña norabidean, dauden zuhaitzak garbitzea edo inautzea.

Ondoko krokisean, jarduketa horietarako proposatzen den eremua zehaztu da. 1:5.000 eskalako kartografia erabili dugunez, hori baita eskura dagoen bakarra, zehaztasun maila ez da proposatzen dugunaren hurbilpen bat baizik.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zer ekimen jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak eskualdeko segurtasuna areagotzeko?

2.- Udalaren eskaria beteko al du Gobernuak, Etxalarko bidegurutzea moldatzeari dagokionez?

3.- Igorri al dio Nafarroako Gobernuak erantzunik?

4.- Hala bada, zein dira exekuzio epeak, eta zein kontusailaren kargura ordainduko dira?

Erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko honako ekimenak jarri ditu abian:

- 60 km orduko abiadura muga jartzea.
- Bidegurutze arriskutsua dagoela ohartarazteko kartelak jartzea.
- Soinu bandak jartzea.
- Errepideko ertzetako zuhaitzak inaustea.

2.- Etxalarko Udalak bidegurutzea berritzeko proposatzen du Iruña-Irun norabideko erreia eta Etxalarrera biratzeko erdiko erreia zabaltzea. Hori ezin da egin, udalak proposatu duen bezala, bidegurutzeko irlatxoak gutxituz

Arrazoia da irlatxoak bidegurutzeko bihurgunearen kanpoaldean daudela. Erreiak zabaltzeko eta Iruña-Irun norabidean dabilzan kamioiek bihurgunea ez laburtzeko, horrela talka egiten baitute Etxalarrera biratzeko erreian dauden ibilgailuekin, beharrezkoa da bihurgunearen erradioa zabaltzea; hori lortzeko zirkulazio-ardatzak bihurgunearen barrualdera eraman behar dira, kasu honetan erre-

karantz, eta sekulan ez bihurgunearen kanpoaldera, horrela erradioa murrizten baita egungo trazadura okerragotuz.

Bihurgunea erreka aldera zabaltzeko beharrezkoa litzateke euste-horma bat egitea. Errepide hori hobetzeko lanen lizitazioa epe laburrean aurreikusita dagoenez, ez dago justifikatuta egungo egoera nabarmen hobetuko ez lukeen behin-behineko jarduketa baten kostua.

Gainerako ekimenak, hau da bidegurutze arriskutsua dagoela ohartarazteko kartela paratzea, soinu-bandak jartzea, abiadura mugatzea eta zuhaitzak inaustea, 2005eko apirilean egin ziren.

3.- 2004ko urriaren 21ean, 2004/283684 espediente-zenbakia, idazki bat bidali genion udalari hark idatziz eskatutako puntu guztiei erantzuteko.

4.- Ekimen horiek 2005eko gastu-aurrekontuen kargura exekutatu dira.

Iruñean, 2006ko otsailaren 6an

Herrilan, Garraio eta komunikazio kontseilaria:  
Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, “Nafarroako Gobernu” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak “Nafarroako Gobernu” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du “Nafarroako Gobernu” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna:

Nafarroako Jauregiaren sarbideetan, San Ignazio etorbidean zein Carlos III.a etorbidean, “Nafarroako Gobernu” izena daramaten identifikazio plakak ezartzea, eta horrekin batera banderak paratzea eta Francoren garaiko sinboloak kentzea, 2003an onetsitako Nafarroako sinboloen erabilera arautzen duen foru legea betetzeko urte horretan egin zen jardueretako bat da. Hori egin aurretik, eraikina mantentzeko eskumena duen Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren baimena eskatu zen. Udalaren baimena ez zen beharrezkoa izan horiek publizitate egiteko asmorik gabeko identifikazio-plakak zirelako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Gares aldeko uretan farmakoak agertu izanari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Gares aldeko uretan farmakoak agertu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Ebro ibaian aurkitu diren sendagaiei buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zer eragin izan ditzaketen medikamentuen kontzentrazio horiek eskualdeko biodibertsitatean?

Oraingoz, ikertzaileek ez dakite zer eragin izan ditzaketen uretan aurkitu diren sendagai horiek biodibertsitatean, ezta pertsonengan ere; izan ere, ikerketa arlo hori oso berria da, gutxi ikertu da eta ondorioz horri buruz gutxi dakite.

Galdera eginarazi duen ikerketa zientifiko hori aitzindaria izan da uretan aurki daitezkeen botikak eta horiek eragin ditzaketen ondorioak aztertzen. Ikerketa Aquaterra izeneko Europako proiektuaren barruan dago, eta Ebro ibaiko egoeraz gain, kontinenteko beste bost ibai handiko egoera ere aztertzen du.

CSICeko ingurumena ikertzeko institutuko kide eta Aquaterraren koordinatzailea den Damiá Barceló adierazitakoaren arabera, Ebron aurkitu den botiken kontzentrazioa ez da salbuespena, baizik eta Europa mailan aurkitzen denaren parekoa;



gainera, oraindik ez da behar bezala aztertu horrek ingurumenean duen eragina.

– Kontrolatuta al du Nafarroako Gobernuak bertako faunan eragina duen egoera hori?

Arazo azalera berria izanik eta ikerketak hasi baino ez direnez, Nafarroako Gobernuak aipatu ikerketen nondik norakoak zein diren eta zer neurri hartzen diren jakiteko bitartekoak jarriko ditu. Bestalde, Europan ez dago gai horri buruzko inolako legerik, zehazki, araztegi batetik atera daitezkeen botika bakoitzeko gehienezko kopurua.

Lehen aipatu denez, arazoaren ezagutzan aurreratzea Aqualterre proiektuaren helburu nagusienetakoa da. Proiektua Europako honako bost ibaietan garatuko da: Ebro, Meuse, Brevilles, Elba eta Danubio. Parte hartzen dute Europar Batasuneko hamahiru herrialdeko 45 erakundek, gehi Suitzak eta Serbiak. Aurrekontu orokorra 13 milioi eurokoa da, horietatik 650.000 Espainiarako dira.

– Nola egingen dio aurre arazoari?

Oraingoan, legeak ez du laguntzen arazoari aurre hartzen Europan botiken kontzentrazioari buruzko araudirik ez dagoelako. Dena den, lehen esan dugunez, Nafarroako Gobernuak arreta berezia eskainiko die egiten ari diren ikerketei, horiek zehaztuko dituztelako bai arriskua zein den, bai har daitezkeen neurriak zein diren ere (arazteko prozesuak hobetzea).

– Ba al du egoera horrek arriskurik herritarrentzat? Horri buruz dauden txostenak nahi genituzke.

Ikusi denez, ikerketa taldeak orain aurrean dituen galderetako bat da ea zer eragin duen botiken bidezko kutsadura horrek izaki bizidunengan, eta zehazki, ea pertsonen osasunarengan eragin zuzena duen. proiektuaren Espainiako koordinatzaile Damiá Barcelóren iritziz, oraindik gehiago ikertu behar da jakiteko substantzia mota horien eraginpean epe luzean egoteak nola eragiten dien algei edo arrainei eta uretan dauden botiken kontzentrazioek zer eragin duten pertsonen osasunarengan.

Gaiari interesgarri iritzi diogunez, zenbait kontsulta egin ditugu: Osasun Publikoaren Institutuari, Ebroko Ur Konfederazioari eta interneten bidez. Kontsultatutako iturri guztiak bat datoz orain arte adierazitakoarekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

## **Galdera, ingurumen nahiz kultura arloko gaietarako Iberdrolak jarritako diruari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak ingurumen nahiz kultura arloko gaietarako Iberdrolak jarritako diruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduren 27ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra,” parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo andreak galdera egin du Iberdrolak Nafarroako Gobernuari egin dizkion diru-ekarpenei buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zenbat egiten du diru horrek?

– Urtero jasotzen al da?

– Noiztik jasotzen ari da dirua Iberdrolarengandik ingurumen eta kultur gaietarako?

– Kulturaren eta ingurumenean inbertitu al da diru hori?

– Hala bada, ingurumenarekin eta kulturarekin loturiko zein proiektu jarri dira abian diru horrekin?

Hasteko esan behar dugu Nafarroako Gobernuak ez duela Iberdrolarengandik dirurik jaso ingurumen eta kultur gaietarako.

Dena den, honako enpresa publiko hauek edo enpresa publikoen partaidetza duten fundazio hauek dirua jaso dute Iberdrolarengandik:

a) Iberdrola Baluarte Fundazioaren partaide da, eta 2004tik eta 2006ra urte bakoitzeko 100.000 euro emateko konpromisoa du.

b) 2001ean, Iberdrolak babesletza-kontratu bat sinatu zuen Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. enpresarekin; hori dela eta, 46.441 euro eman zizkion sozietate horri Aragoi ibaiko arroan habitat naturalen inbentario bat egiteko. Bestalde, Iberincok egindako azterlan bat, “Aragoi ibaiko presa, oztopo, isurketa, kaptazio eta bestelako aldaketei buruzko inbentarioa” izenekoa bere kargura egin eta Viveros enpresari eman zion; bere kargura ere, uraren kalitatea kontrolatzeko eta ibaiaren emari ekologikoa kalkulatzeko laginketa-estazio sare bat definitu zuen, 45.000 euro balio dituena.

c) 2005ean, Iberdrolak 6.000 euroekin lagundu zuen energia eta aldaketari buruzko erakusketari ibiltariarekin batera antzeztu zen antzezlana; erakusketa Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroak antolatu zuen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 31n

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

## **Galdera, Olaztin errausteko industria-jarduera abian jartzeko aukerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Olaztin errausteko industria-jarduera abian jartzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Olaztiko Cementos Portland enpresari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Ea Nafarroako Gobernuak badakien Cementos Portland, SA enpresak interesa edo asmoa ote duen Olaztiko plantan hondakinak errausteko jarduera industriala abian jartzeko. Hala bada, zein motatako hondakinak erreko dituen.

– Ea Nafarroako Gobernuak Cementos Portland SA enpresaren xede horretarako edozein motatako eskaera, kontsulta edo ekimen administratiborik jaso duen. Eta hala bada, zein motatako hondakinez ari gara, zein izan diren Nafarroako Gobernuak eman dituen urratsak eta espedientearen tramitazio administratiboa zertan den.

– Zein den Nafarroako Gobernuak duen jarrera Nafarroan hondakinak errausteko jarduera industrial bat ezartzeko aukerari buruz.

Oro har, Europar Batasuneko zementuaren industria ohiko erregaien ordeztu erregai alternatibo-

ak erabiltzeko prozesua bultzatzen ari da; hori dela eta, Europar Batasunean, clinker labeetan egiten den kontsumo termikoaren % 12 erregai alternatiboekin egiten da.

Espanian, prozesu hori atzeratuago dago; 2003ko datuen arabera, zementuaren sektoreak, gutxi gorabehera, 121.000 tona hondakin erabili zituen erregai alternatibo gisa, hau da, clinker labeetan egindako kontsumo termikoaren % 2,5 baino zerbait gehiago. Erregai horiek, funtsean, honakoak izan ziren: animalia-irinak, likido alternatiboak, olioak, pneumatikoak eta egur hondakinak.

Gauzak horrela, argi dago zementuaren sektorea aztertzen ari dela etorkizunean erregai alternatiboak erabiltzeko aukera.

Hori esanda, Cementos Portland S.A. enpresarengandik ez da inolako eskaera, kontsulta edo ekimen administratiborik jaso hondakinak errausteko aukerari buruz, eta tramitatzen ari den ingurumen baimen integratuak ez du aukera hori aurreikusten. Etorkizunean enpresak gogoan hartzen badu aukera hori, aldaketa funtsezkotzat joko genuke eta baimen berria tramitatu beharko luke.

Nafarroan hondakinak errausteko jarduera industrial bat ezartzeko aukerari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren jarrera da ekimenaren bideragarritasuna aztertzea indarrean dagoen legeria betetzearen ikuspegitik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Andrés Burguete Torres

## **Galdera, bigarren hezkuntzako zenbait institututan kiroldegirik ez egoteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak bigarren hezkuntzako zenbait institututan kiroldegirik ez egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abenduaren 27ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Corellako "Alhama" eta Iruñeko "Plaza de la Cruz" institutuetako ikasleak ikastetxetik kanpoko kirol instalazioetara eramateari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Corellako Alhama BHIk udal kiroldegiko instalazioak erabiltzen ditu inauguratu zirenetik; izan ere, Corellako Udalak eskola eta udal erabilerako eraiki zuen kiroldegia, maiatzaren 23ko 143/86 Foru Dekretuaren babesean Nafarroako Gobernuak emandako laguntzarekin eta kiroldegiaren eskola-erabilerari eta erabilera publikoari buruzko alde aurretiko aldeko txostenarekin, Hezkuntza Departamentuak emana.

Kiroldegia inauguratu zenetik, Alhama BHIk gimnasioa izandako lekuaren erabilera aldatu zuen (garai batean kapera izan zen, eta komunak, aldagelak, eta gimnasio bati dagozkion dotazioak

jarri zitzaizkion), eta orain, euria egiten duenean aisia-gune bezala eta zehaztu gabeko bestelako jarduetarako erabiltzen du. Hortaz, Corellako Alhama Bigarren Hezkuntzako Institutuak, gorputz hezkuntzako jarduerak egiteko, kiroldegia, garai bateko gimnasioa eta institutuaren barruan dauden kirol pistak erabiltzen ditu.

Herriko lehen eta bigarren hezkuntzako ikaste-txeen eskola egutegian eta ordutegian, kiroldegia soilik eskola-erabilera izan dezake. Ikastaldean ordutegia honakoa da: 8:30etik 14:30era (bigarren hezkuntza) eta 9:30etik 12:30era eta 15:30etik 17:40ra (lehen hezkuntza).

Kiroldegia haur eta lehen hezkuntzako ikaste-txearen barruan dago, Alhama BHItik 123 metro-tara.

Bere aldetik, "Plaza de la Cruz" institutuak ere kirol instalazio egokiak ditu dagokion ordutegiaren arabera eskola orduetan eta eskolaz kanpoko kirol jardueretan erabiltzeko.

Kirol instalazioak ikastetxetik kanpo egoteak ez ditu oztopatzen bertan garatzen diren prestakuntza jarduerak, izan ere, ikastetxeek barne antolaketan behar diren neurriak hartzen dituzte leku batetik bestera joateko eta jarduerak egoki gauzatzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## **Galdera, Toki Administrazioako kontseilariak alkate guztiekin Xabierren deitutako bilerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Toki Administrazioako kontseilariak alkate guztiekin Xabierren deitutako bilerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du iragan otsailaren 4an Xabierren Nafarroako alkateekin egindako bilerari buruz. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Xabierren Nafarroako alkateekin antolatutako bilera hori Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldietako bat da, Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak antolatu duena.

Ekimen horren asmoa zen Nafarroako udalak eta horien bidez udalerrietako elkarteak –kirol arlokoak zein kulturalak edo beste edozein motatakoak izanda– bultzatzea guztiona den ospakizun horretan parte hartzera, udalerrietan egindako ekitaldien bidez edo Xabierrera talde-bisitaldiak antolatuz.

Hori guztia Frantzisko Xabierkoaren, hau da, nafarrik unibertsalenaren jaiotzaren V. mendeurrenaren garrantzia berresteko, eta guztiona dela nabarmentzeko, bereziki nafarrona, ideologia eta sinesmen erlijiosoa edozein izanik ere.

Hala nahi izan zutelako ekitaldian parte hartu zuten alkateen gastu bakarra Xabierreraino joateko bidaiarena izan zen. Nafarroako Gobernuak ez zuen ezein momentutan aurreikusi gastu horiek diruz laguntzea.

Ekitaldi horretarako aurrekontua, batez ere, alkateei eskainitako otamena ordaintzeko izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galderak, “Navarra ante el futuro” erakusketari buruzkoak.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “Navarra ante el futuro” erakusketari buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galderak 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “Navarra Futuro” erakusketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, 2004ko irailaren 20ko erabakiaren bitartez, “Sociedad para el desarrollo de Navarra S.A.” SODENARI erakusketa bat antolatzeko ardura eman zion. Erakusketa horretan, Nafarroak zenbait gaitan duen indarra islatu behar

zen; hala nola, interes sozialean, kulturean, ekonomikoan eta teknologikoan.

Bere aldetik, SODENAK erakusketa antolatze-ko ardura Arte Viva Europa eta Arte Viva Navarra fundazioen esku utzi zuen. Zenbait alternatiba aztertu eta gero, SODENAK, egokiena irizita, Arte Viva izeneko hautatu zuen, kalitatezko eta entzute handiko erakusketak antolatzen eta diseinatzeko egiaztatze moduko esperientzia duelako.

Beraz, SODENA S.A.k hiru milioi euroko hitzarmena sinatu du aipatu fundazio horiekin.

Erakusketaren komisarioa Víctor Manuel Arbe-loa jauna da. Komisarioaren bulegoak –komisarioak eta bere laguntzaileak osatuta dago– 60.000 euroko aurrekontua du, lansariak eta eginkizunak betetzen izan dituzten gastuak ordaintzeko.

Erakusketaren helburuak honakoak dira: alde batetik, Nafarroako ohituren, historiaren eta ondare natural, industrial eta kulturalaren ezagutza herritarren artean zabaltzea; bestalderetik, Nafarroak duen indarra ezagutaraztea, inbertsioa eta fluxu ekonomikoa sustatzeko.

Erakusketak ikus-entzunezkoei garrantzi berezia emanen die, azken aurrerapen teknologikoak izanen ditu eta, halaber, komunitateko sektore eta

errealitate desberdinetan teknologia horiek nola aplikatzen diren erakutsiko du.

Edukiari dagokionez, erakusketa hiru ataletan banaturik antolatuko da: “natura”, “lurraldearen kudeaketa eta iraunkortasuna” eta “ezagutza eta berrikuntza”.

Erakusketa 2006ko azken lauhilekoan egingen da eta gutxienez hiru hilabetez egonen da zabalik.

2006. urteko lehen seihilekoan zehaztuko dira erakusketaren behin betiko datak, noiz hasiko eta bukatuko den eta zenbat denbora iraunen duen.

Erakusketa, hasiera batez, Baluartan paratze-ko diseinatua dago; dena den, erakusketaren datak behin betiko finkatu ondoren, erabakiko da ibiltaria izanen den, hala izanez gero osoa ala zati bat erakutsiko den, eta 2007. urteko Fitur azokara eramanez den ala ez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Azagrako saihebidia eraikitzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Azagrako saihebidia eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Azagrako saihebideari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Nafarroako Gobernuak udalez gairikoa proiektu sektorial deklaratu du Azagrako saihebideari buruzko informazio azterlana, eta horrekin administrazio prozeduraren lehen urratsa onetsi du.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak erabakita baldin badu Azagrako saihebidia eraikitzea, zein epetan egingen da eta zein fasetan dago obra hori?

2. Nondik nora doa foru gobernuak proposaturiko trazadura?

3. Baloratu al dira aukeran izan daitezkeen beste trazadura batzuk? Zein dira eta zergatik utzi dira alde batera?

4. Baldin eta exekutiboak hartu-emanak izan baditu Azagrako Udalarekin egin beharreko trazadurari buruz, zer balorazio egiten du topaketa horiei buruz?

Erantzuna:

1.- "2002-2009 errepedeei buruzko II. plan zuzendarian" programatutako jarduketako bat da Azagrako saihebideta eraikitzea (49 zenbakiko jarduketa); aurreikusita dago obra 2008-2009 urteen bitartean egitea, betiere eskuragarri dagoen aurrekontua kontuan izanik.

Horretarako, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak "NA-134 errepedeko, Ebro ibaiko ardatza, Mendabia, Lodosa, Andosilla, Azagra, Milagro, Valtierra eta Arguedaseko saihebidetako azterlan informatiboa" idatzi zuen. Aipatu azterlan hori, Nafarroako Gobernuak, 2006ko urtarrilaren 9ko erabakiaren bitartez, udalez gaindiko proiektu sektoriala deklaratu zuen; era berean, jendaurrean jarri zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritako ondorioetarako eta baita ingurumen eraginaren ebaluazioaren ondorioetarako. Aipatu erabakia, 2006ko urtarrilaren 27ko NAO on argitaratu zen.

2.- Azterlan informatiboak Azagrako saihebideta egiteko bi ibilbide proposatzen ditu. Biak erantsi dugun ortofotoan agertzen dira.

3.- Bi ibilbide horien artean egokiena onartzea proposatuko dugu, ingurumen eraginaren ebaluazioaren administrazio prozedura jendaurrean jarri ondoren eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren. Aldez aurretik ez dugu inolako ibilbiderik baztertu.

4.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak proiektuari buruzko bilerak izan ditu alkaterekin eta udal ordezkarekin; beraz, horien iritzia ezagutzen ditu. Hala ere, edozein proposamen baloratu baino lehen, jendaurreko informazioaren prozeduran udalak hartuko duen jarrera ofizialaren zain gaude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:  
Álvaro Miranda Simavilla



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,30 »	